

4/1992 LEGEA, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.

Zioen Adierazpena

I

Euskal Herriko polizia erakundeak tratamendu nabaria eta berezia merezi izan zuen Estatutuan: Estatutuaren atalik luzeenetako batek, hamazazpigarrenak, gai honi buruz Autonomi Elkartek duen aginpidea arautzeko helburua zuen bere osoan, eta aldi baterako laugarren xedapenak ahalmen zenbait organo bitariko baterako, Segurtasun-Batzorderako, gordetzea aurrakusten zuen, bai eta nolabaiteko nagusien lanpostuak betetzeko araubidea ere. Gure Elkartearen Oinarrizko Erakunde-Arauean dauden bi puntu horiek Euskadi instituzionalizatzeko prozesuan Polizia Autonomoaren araubideari dagokion egoera berezia egoki bermatzen eta adierazten dute.

Dena dela, Polizia-erakunde bat ezin da egun batetik bestera eratu. Euskal Herrian ere, nahiz eta urrutiko zein hurbileko aurrekari oso nabariak izan, hala nola Lurralde Historikoetako Miñoiak, Foralak eta Mikeleteak edo zenbait Udaltzaingo oso garrantzizkoak, Polizia bat osoa, demokratikoa, zibila eta eraginkorra egituratzea zeregin gaitza da eta eguneroko ahaleginik handiena eskatzen duena.

Hamar urte baino gehiago igaro dira inguru sozio-politiko guztiz nahasi batean eratze-prozesu hau hasi zenetik. Laster berebat hamar urte beteko dira lehen ikastaldiko ertzainak beren karguez jabetu ziren egunetik. Aldi luzea, zalantzarik gabe; eta aldi luze horretan zehar, Estatutuaren testutik beretik abiatutako prozesuak mugari garrantzitsu asko izan ditu bitarteko: 290/1980 Errege Dekretua, Mikeleteak, Foralak eta Miñoiak berrezartzeko eta eguneratzekoa; Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Ertzaintzaren Araudia, 1982koa; Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko oinarrizko legearen azken xedapenetako lehenengoa; Eusko Legebiltzarreko Erakunde eta Herrizaingo Batzordearen Ebazpena, 1990.eko apirilaren 5ekoa, Ertzaintzaren alorrean Estatutua garatzeko irizpideei buruzkoa; Zerbitzuen Mugaketari buruzko Akordioa, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen eta Ertzaintzaren artekoa; beste hainbat iharduketa eta erabaki ondorio handikoak. Horien artean, Polizia Autonomoko Kidegoa, Ertzaintza, finkatzeko prozesuak aipamen berezia merezi du beharbada; Ertzaintzaren finkapena zenbait pertsona eta talde hartara bilduz gertatu da; pertsona eta talde horiek, Kidegoa martxan jartzeko modu eta baldintzei buruzko zalantza-inguru batean, eta politika eta gizarte giroa nolabaitekoa zelarik, jai berriak ziren euskal erakundearen segurtasuna bermatzeko eta babesteko zeregin zaila bete dute lehen momentutik. Biltze hori arau-esparru egokirik gabe egin behar izan zen, eta, beraz, egoeraren berezitasuna kontuan hartzen zuten ohiz kanpoko tratamenduak erabiltzera behartu zuen.

Beste alde batetik, prozesu honek hurbileko etorkizuneranzko jarraibidea izan dezan, Ertzaintzaren zabalkundea amaitzeko konpromezua dakarkigu, bere ondorio eta eskakizun guztiekin.

Orain arte aipatu diren aurrekari eta gerorako ikuspegiei nahi die erantzun lege honek. Horri begira taiutu da Ertzaintzaren antolakuntza, Ertzaintza Polizia Kidego bat osoa izan dadin, Autonomi Elkarteko lurralde guztiaren segurtasunaren erantzukizuna hartzen duena eta prest dagoena bai lege-hausteen ikerketan bai errudunak zigortzen epaile eta auzitegiei eraginkortasunez laguntzeko. Dagokion eta behar duen mailako estatutu-araubide bat ere ezartzen du legeak, Euskal Herriko polizia guztientzat balio izatea eta Autonomi Elkarteko funtzionarien araubide orokorretik ahalik eta hurbilen egotea nahi dena. Ertzaintzako funtzionarien eskubide sindikalak arautzen dira, bai eta funtzionari horiei interesatzen zaizkien gai publikoetan parte hartzeko modua ere, eta, azkenik, segurtasunerako administrazio-sistema baten taiukera orokorra ezartzen da, poliziaren zereginari lotuta eta harekin erlazionatuta daudenek behar bezalako koordinaketa eta partaidetasunaz, eta erakunde guztien aginpideei begirunea erakutsiz, ihardutea bermatuko duena.

II

1.- Euskal Herriko polizia-erakundearen foru-jatorria ukaezina da. Foru-araubidearen eguneratzea kasu honetan aginpide berarizko baten oinarria izateaz gain, Ertzaintza eratzeko modua berezi bihurtzen duena da. Ez genuke ahaztu behar, halere, Poliziaz ari garelarik, eskubide historikoa elkartearen aginpide baten iturri eta sorburu bilakatu dela. Honegatik behar die lege honek Estatutuaren hamazazpigarren ataleko boskarren idazatiak ireki zituen ahalbideei erantzun. Hori dela eta, arrazoizkotasunak eta eraginkortasunak eskaturik, Miñoiak, Foralak eta Mikeleteak Ertzaintzako Kidegoan sartzea erabakitzen da, baina, Mikeleteen, Foralen eta Miñoien sekzioak mantenduta, lurralde-foralitatearen gaurko irudia zehazki errespetatuz; Mikeleteen, Foralen eta Miñoien sekzioei beren ordezkari-tza-zereginak eta usadiozkoak aitortzen zaizkie, eta foru-organoek atxikipen funtzional horri dagozkion aginpide eta ahalmenei eutsiko diete. Miñoien Kidegoan gaur egun dauden funtzionarioen bidezko eskubide eta itzarobideei begirunea erakusten zaiela gaineratu behar da, oinarritzko erabaki haren ikuspegitik ahal den eta egoki den punturaino.

Legeak, bestalde, Udalek segurtasun eta poliziari buruz behar duten autonomia eta arlo horietan euskal Administrazioen iharduketa eraginkortasunez antolatzeke eskaria bata bestearekin lotzeko premiaren aurrean jarrera hartzen du. Ildo berean, egungo egoeraren ezaugarriak kontutan harturik, eta Udaltzaingoen ohizko esparru funtzionalaren barruan, udaltzainen eta ertzainen heziketa eta estatutua berdina direla nabarmentzen da biziki. Arau horiek aplikatzeko, heziketarako eta birgaikuntzarako ahalegin handia behar da, ezpairik gabe. Baina hori da, ziur aski, modurik onena geroari begira polizia guztiak beren iharduna burutzeko gai izango direla bermatzeko eta Euskal Herriko Polizia Kidegoen arteko kide-tasuna eta komunikazioa lortzeko.

Era berean, kide-tzeko beharrezko diren arauak aurrikusten dira eta ekintza-mailaraino doazen koordinaketa eta lankidetzak bideak ezartzen, lurralde berean aritzen diren polizia kidegoen aniztasunak askatasunak bermatzeko eta lege-hausteei aurre hartzeko eraginkortasun -maila txikiagotzerik ekarri ez dezan.

2.- Lege honek Euskal Herriko Polizien iharduneko arau nagusiak jasotzen ditu, Polizia demokratiko baten iharduera muin-muinetik ezaugarritu behar dutenak. Jokabide-arautegi labur bat da, gure artean nolabaiteko tradizioa hartzen ari dena, ez bait da ahaztekoa puntu honetan Ertzaintzaren Araudiak duen aitzindari-izaera, dirudienez garrantzizko garapenak izango dituen.

Euskal Herriko polizien estatutu-araubidea ere luze-zabal arautzen da, bai eta haien eskubide sindikalak eta interesak zaizkien gaitan parte hartzeko modua ere. Ez dago azpimarratu beharrik estatutu-araubide ondo atondu eta zehatz batek pertsonen erakunde baten funtzionamenduan duen garrantzia, eta batez ere erakunde hori izatez mailakatu bada eta bere gain askatasunak bermatzea bezalako zeregin guztiz ardurazkoa badu. Lege hau erronka horri erantzuten saiatu da euskal funtzio publikoaren araubide orokorretik, premia berezien kaltetan gabe, ahal den hurbilena dagoen lege-araubide egoki batez, eta, bestalde, zuzenean doakien arteko adostasunik handiena bilatuz, zeinen partaidetzarik gabe nekez lor dezakeen arrakasta pertsonak eta haien askatasun eta ondasunak babesteko asmoak.

Kidegoen barneko egitura eta polizia-karrera arautzeak bai kidegoen dimentsio eta jarrera, bai lanbide honek bere kideak hezi eta garatzeko agertzen dituen berezitasunak kontutan hartu behar izan ditu.

3.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari ageriko leku bat dagokio legearen sisteman eta euskal Poliziaren eratze-prozesuan.

Polizia bat ezin da eraginkorra izan bertako kideek heziketa ona, burutu beharreko zereginarekin egokitua eta etengabe eguneratua izan ezean. Gainera, polizia ihardunak agenteen hizkuntz gaitasun egokia eskatzen du, herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Heziketarako eta gaikuntzarako eginkizun garrantzitsu hori, Ertzaintzara ez ezik, Udaltzaingoetara ere hedatu beharra dago, eta horrek erakunde autonomo bat eratzea aholkatu du, zeinaren organo

araupetzaille gorenak partaidetasun zabala onartuko duten eta egokiro hornitua eta zaindua izan beharko duen.

ATARIKO IDAZPURUA

1. atala.-

Honako hauek dira lege honen helburuak: Euskal Herriko Autonomi Elkarteko segurantzza - administrazioa antolatzea, udaltzaingoaren arteko koordinaketa bideratzea eta euskal herri-administrazioen menpeko Polozia-Kidegoetako langilegoaren berarizko jaurpidea araupetzea.

2. atala.-

Lege hau ezarriko zaie ondoren adierazten diren Administrazioen menpeko Polizia Kidegoei:

a) Autonomi Elkarteko Administrazioa.

b) Toki-Administrazioa.

3. atala.-

Euskal Herriko Polizia Kidegoek, pertsonak beren eskubide eta askatasunez baliatu ahal izan daitezkeen babes-neurriak hartzea eta herritarren segurtasuna bermatzea dute beren egiteko, horretarako, legearen arauera, pakezko elkarbizitza eta pertsonak eta horien ondasunak babestean arduratu behar dute.

4. atala.-

Herritarren segurtasunerako Euskal Autonomi Elkarteko politika, gizarte-ongundea lortzera bideratuko da. Horretarako, gizarte-bazterketari aurre egiteko Euskal Herriko administrazio ezberdinek burutu ditzaten besteekin koordinatuko da eta agente sozial desberdinen eskakizunak hartuko ditu kontutan.

I. IDAZPURUA

SEGURTASUN-ADMINISTRAZIOARI BURUZ

I. ATALBURUA

ORGANOAK ETA HAIEN AGINPIDEAK

1. SAILA

EUSKO JAURLARITZAN SEGURTASUN-ARLOKO ESKUMENA DUEN SAILA

5. atala.-

1.- Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen saila da herritarren segurtasunerako Autonomi Elkarteko politikaren organo arduraduna, Jaurlaritzak ezarritako helburu orokorren arabera.

2.- Jaurlaritza goren aginpidedun izanik, hori Lehendakariaren bidez egiteratzen duela, Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailari dagokio Ertzaintzaren eta honen lagungarritarako zerbitzuen burugoa eta goren zuzendaritza ere, zerbitzu horiei buruzkoan honako zeregin hauek aritzen dela:

a) Zerbitzuak zuzentzea, koordinatzea eta ikuskatzea.

b) Egitamuketa orokorra eta egitamu tekniko-operatiboen koordinaketa tekniko-operatiboa egiten.

c) Ekonomi iharduerako planak eta egitasmoak prestatzea eta horiek koordinatu eta burutzea, indarrean dagoen legediaren arabera, Gobernu-Kontseiluari edo bestelako organoei dagozkienak izan ezik.

d) Ikerketa orokorrak egitea, antolakuntzari, koordinaketari eta garapenari buruz.

e) Ertzaintzako funtzionarien estatutu-araubidea aplikatu eta ikuskatzea, lege honek agintzen duenaren indarrez Gobernu-Kontseiluari dagozkion ahalmenak edo beste organo batzuei eman zaizkienak izan ezik, eta Autonomi Elkarteko Administrazioaren ordezkariak zehaztea funtzionarien ordezkariekin negoziaketan aritzeko.

f) Ertzaintzaren laguntzarako zerbitzuei atxikitako langilegoa kudeatzen, Euskal Herriko funtzio publiko osoari ezartzekoak diren oinarri-irizpide nagusiei jarraiki.

3.- Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailari dagokio Ertzaintzaren eta honen lagungarritarako zerbitzuen eta Udaltzaingoen arteko koordinazioa sustatzea, beti ere, azken hauen egitura eta aribide-aldeetarako burujabetasunari begirune izanez.

4.- Aurreko idazatian oharmandako aginpideak, indarrean dagoen araubideak ematen dizkion bestelako aginpideen kaltetan gabe ulertuko dira, eta Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen saileko organoek egiteratu beharko dituzte haren Egitura Organikoaren Dekretuan horretarako ezartzen den banaketaren arabera.

II. KAPITULUA

POLIZIAREN JARDUNA KONTROLATZEKO MEKANISMOAK

6. artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia erantzule da herritarren aurrean bere jardueren zuzentasunaz eta efikaziaz, lege honetan aurreikusitako mekanismoen bidez, bai eta administrazio-jarduerarako dauden kontrol jurisdikzionalaren zein kontrol parlamentarioaren bidez ere.

2.– Kexak tratatzeko eta ustezko jardunbide txarrak ikertzeko prozedura eraginkorrak eta inpartzialak ezarriko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoak mende dituzten administrazio publikoek; prozedura horiek erantzukizuna erraztuko dute, eta herritarren eta Poliziaren arteko komunikazioan eta elkar ulertzean oinarrituko dira.

7. artikulua.–

1.– Herritarrek Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritarren ekimenen bulegoan aurkeztu ahalko dituzte zerbitzu polizialen funtzionamenduari buruzko kexak; nolahi ere, tokiko administrazioetan beren zerbitzuei buruzko kexak aurkezteko mekanismoetara ere jo ahalko dute.

2.– Ekinbiden Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoei buruz jasotako kexak tokiko agintariei bidaliko zaizkie, izapidetu ditzaten.

8. artikulua.–

1.– Gatazkak konpontzeko metodo alternatiboak arbitratu ahalko dira, bitartekaritza, esaterako; betiere metodook gatazkak konpontzeko efikazagoak badira, eta aldeek onartuak.

2.– Ez dira baliatuko metodo alternatibo informal horiek, zigor- edo diziplina-arloko gaitzespena

merezi ahal dituzten jokabideengatik aurkeztu badira kexak.

9. artikulua.–

1.– Ekinbidek aurkeztutako kexen segimendua egingo du, errepikatzen diren elementuak dauden aztertzeko eta elementu horien kausak ikertzeko.

2.– Publizitatea emango zaie Ekinbidek kexei buruz egindako ebazpen-txostenei, datu pertsonalen edo legez konfidentzialtasuna edo erreserba gorde behar duten bestelako datuen konfidentzialtasuna errespetatuz.

3.– Kexak tratatzeko sistemaren emaitzak Ekinbidek Legebiltzarrean aurkezten duen urteko memorian sartuko dira, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeako Legean ezarritakoaren arabera.

4.– Ekinbidek erregulatutako formatu bat sortuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako agenteek artatutako pertsonen esker onak eta zorionak biltzeko, aurreko puntuetan jasotako oihartzun berberarekin. Halaber, zorion eta eskertza horiek kontuan hartuko dira dominak edo kondekorazioak emate aldera, horrela badagokio.

10. artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzen da, kide anitzeko organo gisa, zeinak autonomia funtzionala duen erakunde polizialarekiko eta Eusko Jaurlaritzan segurtasun-gaietan eskumena duen sailarekiko. Haren eginkizuna da jardun polizialaren gaineko kontrolen legitimitatea indartzea eta kontrol horien neutraltasunean eta objektibotasunean herritarrek duten konfiantza indartzea.

2.– Hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen eginkizunak:

a) Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren barruko zenbait jokabide edo jardunbide ikertzea, 12.1 artikuluan adierazitako erakundeek hala eskatuta, baldin eta kexak jaso badira eskubideak urratzeari buruz eta kezka handia badago herritarrek polizian duten konfiantzan izandako inpaktuarengatik.

b) Poliziaren esku-hartze edo operatibo baten testuinguruan edo zaintza polizial baten barruan norbait hiltzen bada edo larriki lesionatuta suertatzen bada, nahitaez, ofizioz ikertuko ditu gorabehera horiek. Ertzaintzak edo Udaltzaingoak berehala jakinarazi beharko diote hori gertatu dela batzordeari.

c) Aurreko eginkizunak gauzatzekoan egindako ikerketak ikusita, jardunbide onak gomendatu beharko ditu; poliziaren kode deontologikoarekin bat ez datozen jokabide-patroiak edo jardunbideak identifikatu, eta neurri zuzentzaileak edo prebentiboak proposatuko ditu.

3.– Aztertzen ari den jardunbide poliziala agindu edo mandatu judizialak betetzearen ondorio denean, batzordeak ez ditu haiek aztertuko; nolahi ere, aztertu ahalko du nola gauzatzen diren, horri dagokionez Poliziak erabakitzeko marjina duen neurrian.

11. artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea osatuko dute batzorde horren buruak eta Gobernu Kontseiluak izendatutako beste bost lagunek, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluak hala proposaturik, zeinek segurtasun publiko, zuzenbide, soziologia, medikuntza, psikologia eta etikaren moduko arloetan aitortutako izena, erabakimena eta esperientzia izan beharko baitute.

Kideen hirutik bat izendatuko da Eusko Autonomia Erkidegoko Poliziako eskaletan eta

kategorietan izan diren edo dauden pertsonen artetik aukeratuta, eta, gutxienez, hamabost urteko esperientzia izan beharko dute kidegoan; kideen beste hirutik bat, berriz, aukeratuko da aipatu arloetan entzute akademiko handia duten langileen artetik.

Batzordeak berak, osoko bilkuran bilduta, hautatuko du lehendakaritza hartuko duen batzordekidea.

2.– Izendapena bost urterako izango da, berau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Izendapen hori birritan baino ezin izango da berritu, iraupen bereko denboraldietarako.

3.– Arrazoi hauek direla medio baino ez dute kargua utziko: hilez gero; agintaldia amaituz gero; karguari uko eginez gero, idazki formalizatu baten bidez; batzordeko gehiengoak ulertuz gero larriki hautsi direla abstentzio eta isiltasuneko betebeharrak; epai irmo baten bidez ezgaitzea aitortuz gero edo epai irmo baten bidez doluzko delituarengatik zigorra egonez gero.

4.– Batzordeko kideek ez dute inolako ordainsaririk jasoko beren lanen truke. Nolanahi ere, zerbitzu-arrazoiengatik kalte-ordainak kobratu ahal izango dituzte.

5.– Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan partida espezifikoa nahikoa jasoko da batzordeak bere lanak egin ahal ditzan.

12. artikulua.–

1.– Batzordeak esku hartuko du segurtasun-eskumenak dituen sailak, dagokion udal-agintariak edo Arartekoak hala eskatuta, eta ofizioz jokatu du soilik lege honek berariaz aurreikusitako kasuetan.

2.– Batzordeko kideek berek gauzatuko dituzte batzordearen jardunbideak, eta, hala badagokio, ikerketa jakin batzuk egiteko, zerbitzu-eginkizunetan diharduten funtzionarioen laguntza eskatu ahal dute. Kasu horietan, ez dute jaso beharko jatorri-destinoko agintariak emandako agindurik.

3.– Polizia-arduradunek instalazio polizialean sartzea erraztu beharko dio batzordeari, bai eta ikerketa bideratu aurretik behar diren datu, dokumentu, datu-base, komisariako bideo- zein audio-grabaketak eta artxibo polizial guztiak eskuratzea ere. Poliziako langile guztiak ikerketan laguntzera behartuta daude, zitazioetara joanda eta behar diren datuak eta informazioa emanda. Zentzu horretan edozein polizia-azpiegiturak edo eraikinek izango du mugarik gabeko sarrera, edozein momentutan eta alde zuzenetik jakinarazpena egin gabe.

4.– Batzordeak ikertzen dituen gertakizunak ikerketa judizial edo diziplinazkoa burutzen ari dela ezagutzen badu, ikerketa horrekin zerikusia ez duen, edo kaltetzen ez duen beste edozein ikerketa egin ahal izango du. Ikertzen dituzten gertakizunak egiten ari den ikerketa penal baten xedea badira, agintari judizial eskudunari haren berri emango diote, ikerketa penalean esku ez hartzeko, ezta haren jardueren erreserban ere.

Hala gertatuz gero, diligentsia penalen ikerketa diren langileak ez dira batzordeari laguntzera behartuta egongo, eta, batzordeak kasuarekin lotutako dokumentazio administratiboa eskuratu behar izanez gero edo ikuskapenak in situ egin behar izanez gero, aurretik kasuan diharduen agintari judizialaren onarpena lortu beharko du.

5.– Edozein unetan, batzordeak antzematen badu ez-zilegi penala edo administratiboa egon daitekeela, haren berri emango die agintari eskudunei.

13. artikulua.–

Ikerketa amaituta, batzordeak txosten bat emango du, non hau guztia jasoko baitu laburbilduta: kasuaren gorabeherak; egindako jarduerak; jarduera polizialaren zuzentasunaren ebaluazioa,

indarrean dauden araei, estandarrei, prozedurei eta protokoloei jarraikiz; eta azpian dauden arazoan azterketa. Horrez gain, gomendio bat ere idatziko du, zeinean, hala badagokio, neurri zuzentzaileak, prebentiboak edo hobetzekoak proposatu ahalko baititu, hutsuneei aurre egiteko edo atzemandako arazoak errepikatzea saihesteko.

14. artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeari buruzko publikitatea eta zabalkundea egingo da, haren izatearen, funtzioen, funtzionamenduaren eta lanaren berri emanez.

2.– Batzordeak bere jardueri buruzko txosten bat egingo du, bi urterik behin, eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio.

III. ATALBURUA

EUSKAL POLIZIA KONTSEILUA

16. atala.-

1.- Ertzaintzaren Kontseilua sortzen da, berdineango erakunde gisa, Ertzaintzaren proposamen eta kontsultarako.

2.- Kontseiluak Herrizaingo Sailburua izango du buru, eta Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen saileko bost ordezkariak eta Kidegoko beste bost funtzionarioak osatuko dute.

3.- Herrizaingo Sailburuari dagokio Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen saileko ordezkariak izendatzea eta kargutik kentzea.

4.- Funtzionarioen ordezkariak hauteskunde-ordezkaritza sistemaren bidez izendatuko dira, atalburu honetan eta bere egiterapenerako ematen den araudian ezarritakoaren arabera.

17. atala.-

Honako zeregin hauek ditu Ertzaintzaren Kontseiluak:

a) Lanpostuak betetzeko egiten diren lehiaketak burutzeko erabili beharreko irizpideei buruzko proposamenak egitea.

b) Lanbide estatutuari buruzko kontsultei erantzutea.

c) Lan-teknika eta metodoak berritzeko programen prestakuntza laguntzea.

d) Diziplina-espedienteen ebazpen-proposamenei buruzko txostenak egitea, zerbitzutik bereizteko zigorra proposatzen denean, eta egotzitako gertakariak izan zirenean sindikatuetakako ordezkariak edo delegatuak zirenen kontra izapidetzen diren guztietan.

Era berean, funtzionarioak birgaitzeko espedientei dagokienez duen iritzia jasotzea.

e) Estatutu araubidearen inguruko alorrean eragiten dien lege aurreiritasmo eta xedapen orokorren egitasmoei buruzko txostenak egitea hilabeteko epean.

f) Bere antolakuntza eta funtzionamendurako arauak onestea. Akordioaren araubideari dagokionean, arau horiek, Administrazioaren ihardunbidea arautzeko indarrean dagoen araudian organo kolegiatuentzat ezarritakoari lotuko zaizkio.

g) Ertzaintzako langilego-politikari buruzko neurriak eztabaidatu eta proposatzea, batez ere,

sarrerako sistemei, lantokien zerrendei, sustapenari eta lanbide-karrerari, eta lansarien ezarpenari lotutako arloetan, baita berarizko eta ekoizkortasunagatikako osagarriak zedarritzeko irizpide nagusiei buruzko argipideak ematea ere.

h) Kontseiluko edozein kidek Kontseiluaren aginpidekoak diren arloen inguruko edozein gairi buruzko iritzia eskatzen duenean, hori aztertu eta dagokion txostena egitea, eta egoki erizten dien neurriak proposatzea.

i) Aldizka jasotzea informazioa, Ertzaintzako langileei merezimendu polizialagatikako dominak eman izanaz edo 80. artikuluan aurreikusitako ohorezko maila-igoeraz. Halaber, entzuna izatea zerbitzu-ematearen deklarazio-espedienteetan.

j) Bigarren lanbideko egoerara aldatzera behartzekoak diren ezintasunen taula araupetzekoak diren araudizko manuei buruzko txostenak egitea.

k) Lege eta xedapen orokorrek egozten dizkioten bestelako zereginak burutzea.

18. atala.-

1.- Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailaren ordezkariak izendatzea eta kargutik kentzea horko buruari dagokio.

2.- Lege honen 99. atalak dioenaren arabera ordezkariak lor ditzaten sindikatuei dagokie funtzionarien ordezkariak izendatzea, horietako bakoitzak lortutako botoen arauera eta aipatu manuaren seigarren zatian ezarritako arauari begira. Nolanahi ere, iharduneko zerbitzu egoeran edo bigarren iharduera egoeran dauden Kidegoko karrerako funtzionarien artean egin beharko da izendapena.

19. atala.-

1.- Funtzionarien ordezkariak honako arrazoi hauengatik utziko diote ordezkari izateari:

a) Lau urtez luzatuko den manualdia bukatzeagatik. Halere, epe hori bukatuta oraindik ordezkari berriak izendatzeke badaude, izendapen horiek egin artean aginteal-dia luzatzen dela ulertuko da.

b) Funtzionari izateari uzteagatik.

c) Iharduneko zerbitzuko edo bigarren iharduerako egoera ez den beste edozein administrazio-egoerataraz igarotzeagatik.

d) Hiltzeagatik.

e) Karguari uko egiteagatik. Hori, Kontseiluko Lehendakariari bidalitako idazki baten bidez adierazi beharko da.

f) Izendatu dituen sindikatuak berak ordezkari horiek kendu izanagatik. Horiek kentzeko erabakia Kontseiluko Lehendakariari bidalitako idazki baten bidez adierazi beharko da.

2.- Aurreko idatzian oharmandako kasuetan, bete gabe dagoen ordezkari lanpostua, hori dagokion sindikatuak izendatutako hautagaiak beteko du. Ordezko horrek agintealdia bukatu arte ihardungo du.

II. IDAZPURUA

EUSKAL HERRIKO POLIZIARI BURUZ

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

24. atala.-

1.- Lege honetan oharmandako ondorioetarako, Autonomi Elkartearen Administrazioaren menpeko eta toki-erakundeek menpeko Polizia Kidegoek osatzen dute Euskal Herriko Polizia.

2.- Ertzaintza Kidego bakar moduan eratzen da organikoki, eta bertan sartzen dira, Euskal Herriko Estatutuaren 17.5 atalak dioenaren arabera, Miñoien, Foralen eta Mikeleteen Kidegoak. Halere, Lurralde Historiko bakoitzean egongo da honako izen hau duen Ertzaintzaren zerbitzu bat:

- Arabako Foru Aldundiko Miñoien Sekzioa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Foralen Sekzioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mikeleteen Sekzioa.

3.- Euskal Autonomi Elkarteko udalerrri bakoitzaren udaltzaingoko zerbitzu eta langileak udal-Kidego bakar batean sartuko dira.

25. artikulua.–

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia osatzen duten kidegoak izaera zibileko eta egitura eta antolakuntza hierarkizatua duten institutu armatuak dira. Horietako kideak Autonomia Erkidegoko Administrazioako edo dagokien udalerrietako karrerako funtzionarioak izango dira, eta beren zereginak betetzean agintaritzaren agente-izaera izango dute lege mailako ondorio guztietarako.

26. atala.-

1.- Euskal Autonomi Elkarrekin dituen aginpideen esparruaren baitan, Ertzaintzaren funtsezko zereginak dira pertsonak eta ondasunak babestea, haien beren eskubide eta askatasunez baliatu ahal izan daitezkeen bermatzea eta Euskal Autonomi Elkarteko lurralde-eremu osoan herritarren segurtasunaren alde lan egitea. Horretarako, lege-antolakuntzak Segurtasun-Kidegoei egozten dizkien zereginak betetzen ditu.

2.- Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioek lege honetan berariz esleitzen zaizkien zereginak beteko dituzte.

27. atala.-

1.- Udaltzaingoen zeregin hauek betetzen dituzte:

- a) Udalerrietako agintariak babestea eta haien eraikuntza eta instalakuntzak jagon edo zaintzea.
- b) Hiriguneko zirkulazioa antolatu, seinalizatu eta zuzentzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera.
- c) Hiriguneko gertatzen diren zirkulazio-istripuen ondoko argiketak izapidatzea.
- d) Ordenantza, Bando eta gainerako udal xedapen eta ekintzei buruzko Administrazio-Polizia lanak, eta baita ingurugiroari eta bazter-txokoei kasu egiteko indarrean dagoen legedia bete dadin arduratzea ere, gai horiekikoan toki-erakundeek dituzten aginpideen eremuan.
- e) Auzi-Poliziaren zereginetan parte hartzea, Auzi-Poliziako Unitateei lagunduz.

f) Istripuak, hondamendiak edo ezbehar publikoak gertatzen direnean laguntza ematea, legeetan oharrekin den moduan herri-babeseko planak burutzerakoan esku hartuz.

g) Aurrea hartzeko eginbideak eta lege-hauste diren egintzak eragoztera zuzendutako iharduketa oro burutzea.

h) Leku publikoak zaintzea eta manifestazioak babesten, hala nola jende-bilera handietako ordena mantentzen laguntzea, hori egiteko eskatzen zaienean.

i) Gatazka pribatuei irtenbidea bilatzen laguntzea, hori egiteko eskatzen zaienean.

2.- Aurreko idaztiaren c) eta g) lerroaldietan oharremandakoaren indarrez egindako iharduketen berri emango zaio alor horretan aginpide orokorra duen Segurtasun Indar edo Kidegoari.

3.- Toki-erakundearen lurralde-eremuan ihardungo dute haren menpekoak diren Udaltzaingoeak, eta lurralde-eremu horretatik kanpora ere ihardun ahal izango dute larrialdi edo premiazko egoeretan, aginpidedun agintariak hala eskatuta, dagokion Alkateak horretarako baimena ematen dien kasuetan.

4.- Toki-korporazioetako agintariak babesteko funtzioak betetzen dituztenean, dagokien udalerritik kanpo jardun ahal izango dute, segurtasun-arloan eskumena duen sailaren baimena izanez gero. Baimen hori orokorra eta iraunkorra izango da, hala emanez gero.

5.- Udaltzainen kidegoko langile funtzionarioek erregelamendu bidez zehazturiko armak eta baliabide tekniko operatiboak eramango ditu aldean, ekainaren 28ko 15/2012 Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke Legearen 37.1.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dagokion toki-erakundeak hornituko ditu su-armak eta bestelako baliabide tekniko operatiboak eta defentsakoak, eta leku egoki eta seguruak egongo dira araubidezko armamentua gordetzeko eta zaintzeko, indarrean den araudian ezarritakoaren arabera.

Bide publikoko segurtasunerako zerbitzuak eta segurtasun eta zaintzakoak armekin emango dira. Hala ere, Alkateak erabaki ahal izango du, modu arrazoituan, zer zerbitzu emango diren armarik gabe, Udaltzaingoko buruak aurretiko txostena eman ondoren, non eta ez dakarten berekin zentzuz larritzat jo daitekeen arriskuren bat langile funtzionarioen edo hirugarrenen bizitzarentzat edo osotasun fisikoarentzat.

II. ATALBURUA

DEONTOLOGIAKO ARAU-BILDUMA

28. atala.-

Zaintzako herri-zerbitzua Konstituzioarekiko, Autonomi Estatutuarekiko eta gainontzeko lege-antolakuntzarekiko begirunerik handiena izanez egiteratuko da, eta horri dagokio legeak ezartzen dizkion betebeharrak betetzea, Autonomi Elkartearen alde lan eginez eta pertsona guztiak, beren eskubide eta askatasunez baliatzea galerazi diezaieten lege kontrako ekintzetatik babestuz.

2.- Kapitulu honetan eta lege honen gainerakoan xedatzen dena modu loteslean ulertu behar da Europako Kontseiluaren Poliziaren Etikaren Kode Europarraren inguruko Gomendioan adierazitako printzipio eta arauen argitan. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako agintari eta langileek printzipio eta arau horiei jarraitu behar diete, eta haiek zeinahi modutan urratzeari aurka egin.

29. atala.-

Euskal Herriko Poliziako kideek Auzitegietako agintaritzari men egingo diote, eta Auzi-Polizia diren aldetik bete behar dituzten zereginetan, Zuzentza-Administrazioaren esanetara eta haren menpe

egongo dira legeek ezarritako modu eta neurrietan.

30. atala.-

1.- Euskal Herriko Poliziako kideen jokabidea hobespen politikorik eta alderdikierarik gabekoa izango da guztiz, eta gehiegikeriazko eta bidegabeko edozein ekintza galeraziko dute, berdintasun eta bereizkeriarik ezarekiko sortarauei eta Konstituzioan eta Giza Eskubideei buruzko Mundu-mailako Adierazpenean aipatzen diren beste guztiei uneoro begirune izanez.

2.- Zintzo eta duintasunez jokatu beharko dute beti, eta beren zereginei zor zaien uste ona eta itzala galtzea nahiz zerbitzuaren edo Administrazioaren izen ona edo eraginkortasuna arriskuan jartzea ekar dezaketen jokabide orori itzuri egin beharko diote. Ustelkeria-ekintza guztietatik bereziki jare izan eta horrelakoen aurka erabaki sendoz jokatu behar dute.

30 bis artikulua.–

1.– Honela jokatuko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileek herritarrekiko harremanetan:

a) Tratu zuzena eta zaindua emango diete, enpatiaz jokatuz, eta laguntza emango diete arriskua eta babesgabetasuna saihesteko berehala jarduteko eskatzen duten egoeretan.

b) Inpartzialtasunaren printzipioaren arabera jokatuko dute, ekitatiboki esku hartuz eta era berean errespetatuz norbanako edo talde guztiak, haien tradizioak, sinesmenak edo bizimoduak, betiere legeekin bateragarriak badira eta ez badute herritarren segurtasuna nahasten.

c) Edozein diskriminazio saihestuko dute, arraza, etnia, erlijioa, sinesmenak, sexua, orientabide sexuala, adina, ideologia, ezintasuna edo beste edozein arrazoi direla medio.

d) Hala behar izanez gero, eta beren jarduketekin zerikusia duten pertsonak hala eskatzen badiete, poliziak direla egiaztatu beharko dute. Herritarren aurrean identifikatuko dira, edozein jarduera polizial hasi aurretik, eta egiaztatuko dute herritarrek poliziak direla antzeman dutela. Horretarako, zerbitzua ematen ari diren bitartean, erregelamenduaren arabera uniforme jantzita badaramate, uniformearen leku ikusgarri batean, agente bakoitzari dagokion identifikazio pertsonala eramango dute. Erabilitako identifikatzaile pertsonalen erregistro bat egongo da, hura daraman pertsonaren identitatea ezagutu ahal izateko.

e) Beren esku-hartzeek ukitzen dituzten pertsonen esku-hartze horiei buruzko behar beste informazio emango diete; informazioak ulergarri izan beharko du, eta bereziki zainduko dituzte delituen biktimak eta bereziki ahulak diren kolektiboko kideak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak aintzat hartuko ditu Euskararen Erabilpena Arazten duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean aitortutako hizkuntza-eskubideak, herritarrekin erlazionatzen direnean. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoak beren mende dituzten administrazioak ahaleginduko dira beren zerbitzura aritzen diren langileak behar bezala gaitzen gizarte elebidun batean zerbitzua emateko, eta, horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte eta kidego horietan euskara erabilia izan dadila sustatuko dute. Nolanahi ere, herritarrak zein hizkuntza aukeratu, horrexetan artatuko dute.

3.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoak beren mende dituzten administrazioak ahaleginduko dira beren langileak sentikortzen eta gaitzen, herritarren aniztasuna kudeatzen, bai eta desberdinak diren pertsonen kontra, desberdinak izateagatik, herrak eta diskriminazioak eragindako arau-hausteen kontrako borrokan ere.

31. atala.-

Beren lanbideko iharduketan mailaketa eta menpekotasun printzipioen arabera ihardungo dute; beraz, agintariei eta beren gainera daudenei begirunea zor diete eta haiek esandakoari men egin beharko diete. Halere, argi eta garbi lege-hauste edo legeen aurkakoak diren aginduak ez dituzte bete beharko, eta hori gertatuz gero, ez da inolako diziplinazko neurririk hartuko.

32. atala.-

Beren zereginak direla eta dakizkiten gertakariak oro isilpean gorde beharko dituzte, zeregin horien egiterapenak edo legearen manuek bestela jokatzeko agintzen ez badiete.

33. atala.-

Polizi lanak berezkoak dituen eginkizunak lanetik kanpo daudela ere zaindu behar dituzte Euskal Herriko Poliziako kideek beti legearen eta herritarren segurtasunaren alde eskuhartu beharko dutela, eta istripuak, ezbehar publikoak nahiz zorigaitz partikularrak gertatzen direnean ere lagundu egin beharko dute.

34. atala.-

1.- Euskal Herriko Poliziako kideek, beren zereginak betetzerakoan, behar den kemenez ihardungo dute, eta arrazoizkoa denean bakarrik baliatuko dira indarraz. Beren esku dauden baliabideak erabiltzeko orduan, egokitasun, premia eta heintasun printzipioak hartuko dituzte kontutan.

2.- Ezingo dituzte armak erabili beren edo besteren biziarentzat nahiz gorputz-osotasunarentzat arrisku larria dagoenean edo herritarren segurtasunarentzako arrisku larriko kasuetan izan ezik. Erabili behar izanez gero, aurreko idazatian aipatzen diren printzipioen arabera egingo dute. Su-armak erabiltzea azken neurritzat joko da, eta armatua dagoen norbaitek kontra egiten duenean edo poliziaren nahiz beste norbaiten bizia nola edo hala arriskuan jartzen denean bakarrik erabili ahal izango dira, bestelako neurriak erabiliz atxilotzea edo menderatzea lortzen ez bada.

35. atala.-

Norbait atxilotzen dutenean, behar bezala egiaztatu beharko dute Euskal Herriko Poliziako kide direla eta lege-antolakuntzak eskatzen dituen izapide, epe eta eskakizunak arretaz beteko dituzte.

36. atala.-

1.- Euskal Herriko Poliziako kideek atxilotzen dituzten pertsonen eta bere zainpean dituztenen bizia eta gorputz-osotasuna zainduko dituzte, eta beraien ohore eta duintasuna eta legez dagozkien eskubideak errespetatuko.

2.- Ezingo dute hildurazko edo bestelako tratu anker, giza duintasunaren aurkako edo lotsagarriak eman, eman erazi edo onartu, ez eta aitzakiazat jarri gaineko norbaiten agindurik edo gerra sortzeko nahiz Estatuko segurtasunarentzako arriskua bezalako egoera berezirik.

3.- Beren zainpean daudenen osasuna behar bezala babesten dela bermatu beharko dute. Haien osasun-egoerak hala eskatzen baldin badu, medikuaren laguntza izan dezaten arduratuko dira eta kontu egiten dienaren esanak beteko dituzte, beti ere zainpean daudenen jagotaldia bermatzeko beharrezko diren neurriak gutxitu gabe.

37. atala.-

1.- Euskal Herriko Poliziako kideek iharduketaren bat legezko eta araudizko arauak hautsiz edo urratuz egiten badute, horren arduradun zuzena norbera izango da, Administrazioari horren ondorioz legokiokeen ondarezko erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

2.- Halere, beren zereginak betetzerakoan egindako egintzengatik erantzukizuna eskatzen dieten auzibide guztietan, profesional batek ordezkatuak eta defendatuak izateko eskubidea izango dute Euskal Herriko Poliziako kideek. Hori, beren gainera duten Administrazio publikoaren kontura izango da eta hark izendatuko ditu profesionalak.

Sendetsitako epailletza-ebazpenak, erantzukizuna eskatzea ekarri duten egintzak polizia iharduketa araupetzen duten arauak hautsiz egin dela egiaztatzea gertatuz gero, Administrazioa dagokion atzerabideko eskubideaz baliatu ahal izango da.

38. atala.-

Honako arau-bilduma honetan ezarritako zerbait hautsi dela edo hautsiko dela uste izateko funtsezko arrazoirik baldin badute, beren gainera dituztenei eta, hala behar izanez gero, zigortzeko ahalmena duen edozein agintariri jakin erazi beharko diote.

III. ATALBURUA

ETENGABEKO HEZIKETA, EUSKALDUNTZEA

39. atala.-

1.- Euskal Herriko Poliziako kideek beren zereginak egoki betetzea bermatuko duen etengabeko lanbide heziketa eta gaikuntza izango dute. Era berean, Euskal Administrazio publikoak beren menpeko poliziako funtzionarioek behar bezalako hizkuntz gaitasuna lor dezaten saiatuko dira.

2.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak heziketarako ekintzak prestatuko ditu aldizkako programen bidez, lanbiderako ahalmena eta gaitasuna iraun arazi eta hobetzeko; aipatu programak aldiari-aldikoak, orokorrak eta Euskal Herriko Poliziako funtzionari guztientzat izango dira.

3. Administrazio bakoitzak bere helburuen eta polizia-zerbitzuak betetzeko beharren arabera zehaztuko du akademian planifikatzen diren etengabeko birziklatze- eta prestakuntza-jarduere hartzailerik izango diren langileen planifikazioa, bai eta babes pertsonalerako hornitzen zaizkien bestelako baliabideak erabiltzen trebatzeko beste aldiari behingo praktika batzuen ere.

Azken horiek egingo ditu hartzailerik jotako langile orok, polizia-zerbitzu jarraitua ematea eragotzi gabe, unitate bakoitzarentzat erregelamendu bidez ezartzen den maiztasunarekin, haren zereginak eta funtzioak aintzat hartuta.

4.- Aginduzkotzat ezartzen diren ekintzak nahitanahiez egin beharko dituzte hartzailerik diren funtzionarioek, eta ateratako etekina doakionaren espedientean erasota utziko da.

5.- Heziketazko edozein ekintza burutzeak eta, hala egokituz gero, gaitzitzeak ez du, berez, lanpostu zehatz bati atxikitzeko eskubiderik emango. Halere, eta deialdiari berariz hala oharretematen denean, lortutako heziketa eta ezagupenak beharrezko dituzten lanpostu huts guztiak eskatu beharko dituzte ekintza gaitzitzen duten funtzionarioek, egiten den lehenengo deialdiari eta lehentasunez; hala ez badute egiten, derrigorrez horietako edozein lanpostuari atxikiak izan daitezke.

40. artikulua.-

1.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia sustatuko du Administrazio eskudunak baliozko ditzala beren mendeko zentroetan jasotzen diren ikasketak. Horretarako, akademia ahaleginduko da hezkuntzako administrazioaren eskakizunetara egokitzen ikasketa horien izaera eta iraupena eta ikasketa bakoitza egiteko eskatzen diren titulazioak; gainera, hezkuntzako Administrazioaren, unibertsitatearen, Botere Judizialaren eta ikasketarako bereziki lagungarri izan daitezkeen beste erakunde, zentro edo ikastetxeren lankidetzari lortzea ere sustatuko du.

2.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, bertan egiteko eskaintzen dituen ikastaroetan, ikasgai jakin batzuk baliozkotu ahal izango dizkie horiek lehenago gainditu izana egiaztatzen dutenei, erregelamenduz zehazten den eran, betiere horiek zentro ofizialetan edo polizia-zentroetan eman badira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuetan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak antolatu dituen prestakuntza-ikastaroak baliozkotu ahal izango ditu, lehenagoko beste hautaketa-prozesuetan gaindituta, hautagaiak horrela eskatuz gero. Horrelakoetan, lehenagoko sarbide-ikastaroan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

IV. ATALBURUA

LANPOSTU-ZERRENDAK

41. atala.-

1.– Lanpostu-zerrendetan agertzen dira hurrenkeran jarrita Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako eskala eta kategoria desberdinetako funtzionarioentzako gordeta dauden lanpostuak. Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidego bakoitzak bere lanpostuen zerrenda izango du.

2.- Lanpostu-zerrendek honako xehetasun hauek adierazi beharko dituzte gutxienez:

a) Lanpostuaren izena.

b) Betetzeko sistema.

c) Lanpostuan iharduteko izan behar den eskala edo kategoria.

d) Lanpostuan iharduteko eskatzen diren eskakizunak; horien artean nahitanahiez hizkuntz eskakizunak egon beharko du eta, hala egokituz gero, aginduzko izaten hasten den egunak.

e) Lan-izendapenagatik dagokion osagarri-maila eta, hala egokituz gero, berarizko osagarria.

f) Bete beharreko gutxieneko iraunaldia, baldin eta lanpostuan iharduteak eskatzen dituen heziketazko eta gaikuntzazko ezaugarri berezietan oinarritzen bada ekonomi eta eraginkortasun arrazoiengatik.

g) Bete beharreko gehieneko iraunaldia, burutu behar diren zereginen ezaugarri bereziek eragindakoa, baldin eta gaitasun fisikoari edo oreka psikikoari buruzko arrazoiak hala aholkatzen badute.

3.- Era berean, lanpostu-zerrendek zehaztuko dituzte, bertan agertzen diren lanpostuen artean, bigarren iharduerako egoeran dauden langileek betetzeko modukoak direnak.

4.- Lanpostu-zerrenden bidez sortu, aldatu, bateratu eta ezabatuko dira lanpostuak.

5.- Atal honetan ezarritakoa toki-Administrazioari dagokionean, lanpostu-zerrendak prestatzeari buruz Toki-Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 atalean oharmandakoa aplikatuz eman daitezkeen arauen kaltetan gabe ulertuko da.

42. atala.-

1.- Ertzaintzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailari dagokio lanpostu-zerrendak onestea, eta toki-Administrazioaren menpeko Polizi Kidegoei dagokienez berriz, dagokion toki-erakundeko aginpidedun organoari. Nolanahi ere, lanpostu-zerrendak aurrekontuetako aurrikuspenei egokituko zaizkie, eta bertan ezingo da agertu dagokion urteko ekitaldirako aurrekontu-

zerrendetan oharmandako kredituen bidez ordaindu ezin den lanposturik.

2.- Lanpostu-zerrendak, hala nola bertan egindako aldaketak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo dagokion Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean toki-erakundeetakoak baldin badira.

43. artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoek behar diren espezialitateak izango dituzte, ezagutza espezifikoko batzuen maila jakin bat izatea eskatzen duten lan jakin batzuk egiteko. Espezialitate horietan sartzeko, kasuan kasuko espezializatzeko-ikastaroa gainditu beharko da, eta, hala badagokio, kasu bakoitzean ezartzen diren titulazioak edo ezagutzak eduki beharko dira.

2.– Espezialitate desberdinetako langileei espezialitate horietan jarraitzeko konpromisoa emateko eskatu ahalko zaie, bai eta aldizka gaurkutzeko hautaketa-probak gainditzeko ere, betiere lanpostuen zerrendan jasota badago.

3.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira espezialitateak, haien definizioa, haietan sartzeko, bertan jarraitzeko eta espezialitateak uzteko betekizunak eta baldintzak, bai eta haien arteko bateragarritasuna ere.

V. ATALBURUA

AUKERAKETA

1. SAILA

XEDAPEN OROKORRAK

44. atala.-

1.- Euskal Herriko Polizia osatzen duten Kidegoetako funtzionarien aukeraketa dagokion Administrazio publikoak burutuko du deialdi publiko bidez, eta esku-hartze librearen, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak, hala nola aukeraketa-bidearen iragarkuntzarena betetzen direla bermatuko du.

2.- Egin beharreko proba-moten eta bete beharreko zereginen edukien arteko egokitasuna zainduko dute aukeraketa-bideek, eta horretarako, sartu ahal izango dira ezagupen orokor edo berarizkoei buruzko ariketak, teorikoak nahiz praktikoak, test psikoteknikoak, ahalmen fisikoei buruzko probak, elkarrizketak, heziketa-ikastaroak, praktika-aldiak, eta zereginak betetzeko ezagumenik eta baldintza psikiko eta fisikorik aproposenak dituzten pertsonen aukeraketa bermatzeko egokia den bestelako edozein sistema.

45. atala.-

1.- Polizia Kidegoetan sartzeko deialdien edukiak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Idazpuruan ezarritako oharpenei egokituko zaizkie, eska daitezkeen euskararen hizkuntz gaitasun maileri dagokienean eta hizkuntza hori jakiteari eman beharko litzaiokeen balioari dagokienean.

2.- Hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko egiten diren proben eduki eta moduak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ezarritako aginduei atxikiko zaizkie. Proba horietan, aipatu erakundeko ordezkari bat epaimahai kalifikatzaileko kide izango da.

46. atala.-

Bete beharreko lanpostu hutsen izaerari begira, aukeraketa-bideetan sartu ahal izango dira lanpostu horietan iharduteak eskatzen duen ahalmen bereziari egokitutako berarizko probak, dagokion eskala edo kategoriara sartzeko eska daitekeen egokitasun orokorra neurtzeko beharrezko diren kaltetan gabe. Deialdi horien ondorioz sartzen diren funtzionariak haien sortu dituzten lanpostu hutsei atxikiko zaizkie, lehen lan-izendapen gisa, berezitasun hori etorkizunean bete ditzaketenen kaltetarako izan gabe.

47. atala.-

1.- Aukeraketa-bideetarako deialdiak, hala nola haien oinarri-arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo dagokion Lurralde Historikoko Aldizkarian toki-erakundeetakoak baldin badira.

2.- Deialdiaren oinarri-arauek honako hauek jaso beharko dituzte nahitanahiez:

- a) Lanpostuen zehaztapena, Kidegoa, eskala eta kategoria, nahiz titulazio-taldea adieraziz.
- b) Izangaiek bete beharreko eskakizunak.
- c) Probak, gai-sorta eta, hala badagokio, merezimenduen zerrenda, bai eta ebaluatzeko irizpideak eta arauak ere.
- d) Epaimahaiaren osakera.
- e) Heziketa-ikastaroaren eta praktika-aldiaren ezaugarrien zehaztapena.
- f) Araudiz ezartzen diren gainerako xehetasunak.

3.- Deialdiek bete behar diren lanpostuak zehaztuko dituzte, eska daitezkeen hizkuntz eskakizunak eta barne-aurrerabiderako gordetzen diren lanpostuak adieraziko dituztelarik.

4.- Administrazio publiko bakoitzeko organo aginpidedunek onetsi ahal izango dituzte, bakoitzari dagozkion eremuetan, ondorengo deialdietan aplikatzeko oinarri-arau orokorrak. Oinarri-arau horiek argitaratuak daudenean, dagozkien deialdiek adierazi gabe utzi ahal izango dituzte, noiz eta zein Aldizkari Ofizialetan argitaratu ziren jartzen baldin bada.

5.- Deialdiaren oinarriek lotu egingo dituzte Administrazioa, hautaketa-sistema epaitzeko eginkizuna duten epaimahaiak eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten izangaia.

Deialdiak edo haren oinarriak, behin argitaratu ondoren, administrazio-prozedura erkidea arautzen duten arauetara hertsiki loturik baino ezin izango dira aldatu. Deialdian eskaintzen diren lanpostu hutsen kopurua aldatu nahi denean edo akats materialak edo egitezkoak zuzendu nahi direnean, ez da nahitaezkoa izango eskabideak aurkezteko beste epe bat hastea.

47 bis artikulua.-

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoak beren mende dituzten administrazioek bermatuko dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako aurreikuspenak aplikatuko direla kidego horietako lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautaketa-prozesuetan, segurtasuneko zerbitzu publikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuz.

2.- Polizia-kidegoetan emakumeen presentzia sustatzeko planak egingo dira, kidegoetan sartzeko orduan eta lanbide-karreran emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatzearen.

Plan horiek ezarriko dute, dagokion plangintza-aldirako, emakumearen ordezkariak eskasa zuzentzeko nahiz polizia-eraginkortasuna handitzeko plantillan lortu nahi den emakume-portzentajea, bai eta polizia-eraginkortasuna handitzeko neurriak ere; orobat, emakumeen aldeko berariazko neurriak ezarri ahal izango dituzte, egitatezko desberdintasun nabariak zuzentzeko, oraindik ere baldin badaude.

Neurri horiek bidezkoak eta neurritzkoak izan beharko dute lortu nahi den helburuaren aldean.

3.– Hautaketa-prozeduretako sailkapenean puntuazioan berdin geratzea gertatuz gero, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako irizpideen arabera ebaztiko dira berdintzeak, lege horretan aurreikusitako kasuetan.

4.– Poliziako agentearen eta komisariandokoaren kategorietan txanda irekiaren arabera sartzeko hautaketa-prozeduretan, emakumeek zenbat plaza bete behar dituzten zehaztu behar da, segurtasunaren zerbitzu publikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatzeko xedea iriste aldera sustapen-planean aurreikusitakoari jarraituz.

Plaza kopuru hori, beraz, iritsi nahi den helburuaren araberrako proportzioan eskainiko da, eta ezingo da izan deialdian eskainitakoaren % 40 baino gehiago; halaber, ezingo da izan emakumeak sustatzeko planei eta hautaketa-prozeduretan parte hartzen duten eta prozedura gainditzen duten emakumeen estatistika-datu historikoei jarraituz arrazoiz ezarritako portzentajea baino txikiagoa.

Oro har, emakumeen aldeko sustapen-plan horiek ezartzen ez diren artean, gutxienezko portzentajea ezingo da izan % 25 baino txikiagoa, betiere hiru plaza baino gehiagorako deialdia egiten bada.

5.– Aurreko paragrafoan aipatzen diren hautaketa-prozeduretan, deialdian eskainitako lanpostu hutsak esleitzeko orduan, izangaien behin betiko zerrenda bakarrari jarraituko zaio, hain zuzen ere, zerrenda horretan ageri den puntuazio-hurrenkerari eta berdintzeak ebazteko lege ezarritako irizpideei jarraituz.

Aurreko paragrafoan xedetzat aipatzen den portzentajea ez bada iristen goragoko paragrafoan xedatutakoari jarraituz, emakumezko hautagaiak lehenetsiko dira xedera iritsi artean, betiere:

a) Hautaketa-sistemako oposizio-aldiko probak eta ariketak gainditu izanak gaitasunean baliokidetasuna badakar.

b) Lehentasun hori aplikatuz hautatzen diren emakumezko hautagaien eta atzera geratzen diren gizonen arteko puntuazioaren arteko aldea ez bada % 15 baino handiagoa, ez oposizio-aldian, ez eta, hala behar balitz, lehiaketa-aldian ere –betiere hautaketa-sistemaren arabera.

c) Beste hautagaiari ez badio eragiten neurri hori ez aplikatzeko legezko ezein salbuespenek, nahiz eta sexua dela-eta diskriminaziorik eragiten ez dutenen artekoak izan, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoak izatea.

6.– Aurreko atalean aipatzen den lehentasun hori aplikatzeko, beharrezkoa izango da hautaketa-prozesuaren deialdian eskaintzen diren lanpostuei dagozkien kidego, eskala eta kategorietan emakumezko funtzionarioak % 33ra ez iristea.

48. artikulua.–

1.– Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Akademiak hautaketa-organo iraunkor espezializatu gisa jarduten du Ertzaintzaren hautaketa-prozesuetan, eta udaltzaingoen hautaketa-prozesuetan toki-administrazioek eskatzen diotenean.

Toki-administrazioetako epaimahai edo hautaketa-organo bakoitzean, organo iraunkorrak izan ala

ez, Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Akademiak izendatutako ordezkari bat egongo da, eta ordezkari horrek bere izenean jardungo du.

2.– Epaimahaiek garatu eta ebaluatuko dituzte hautaketa-sistema osatzen duten probak, eta, zeregin horretan, autonomia funtzional osoz jardungo dute; prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango dira, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko dute.

3.– Epaimahaiek edo hautaketa-organismoek kide anitzekoak izan behar dute, eta inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezialitate-printzipioetara egokituta osatu behar dira, bai eta emakume eta gizonen ordezkariak ere.

4.– Inpartzialtasun-printzipioaren arabera:

a) Epaimahaikide edo hautaketa-organismoetako kide norbere izenean izan beharko da, eta ez inor ordeztuz edo inoren izenean.

b) Hauek guztiak ezin izango dira hautaketa-epaimahaikide izan: hautaketa edo izendapen politikoko langileak, behin-behineko langileak, bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kontratudun langileak, ezta azken bost urteotan enplegu publikoan sartu nahi zuten hautagaiak prestatzen ibili direnak ere.

c) Hautaketa-epaimahaikideek eta hautaketa-organismoetako kideek ezin izango dute parte hartu arrazoi pertsonal edo profesionalengatik, edo bestelakoengatik, haien inpartzialtasuna zalantzan egon daitekeen kasuetan, ez eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako egoeretan ere.

5.– Espezialitate-printzipioaren arabera, boto-eskubidea duten kide guztiek lanpostua eskuratzeko behar den ikasketa-maila bereko edo goragoko titulazioa izan beharko dute, eta, erdiek, gutxienez, ezagutza-alor berekoa.

6.– Gizonen eta emakumeen arteko ordezkariak orekatuaren printzipioari jarraikiz, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza aproposa duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango da, hori ezinezkoa dela justifikatzen denean izan ezik. Lau kideetik gorako hautaketa-organismoetarako dagokienez, honako hau jotzen da ordezkariak orekatutzat: sexuatariko bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak izatea; gainontzekoetan, sexu biak ordezkariak egotea.

7.– Epaimahaiak aholkulari-espezialisten lanaz baliatu ahal izango dira beren lanetan, hautaketa-sistemaren proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari-espezialista horiek beren aholkularitza eta laguntza teknikoa ematera mugatuko dira beren espezialitateetan jardutean. Aholkulari horien jardunak ere objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioen arabera izan beharko du.

8.– Prestakuntza-ikastaroetan eta praktikaldietan tutore eta gainbegiratzailerik izango direnek egokitasun- eta inpartzialtasun-eskakizunak bete beharko dituzte, eta uko egin zeregin horiek hartzeari, horretarako arrazoiren bat egonez gero.

49. atala.-

1.- Epaimahaien ebazpenak behartze-indarrekoak izango dira funtzionari-izendapena egitea dagokion organoarentzat, horrek, baliogabetu ditzakeen araugabetasunen bat gertatuz gero, Administrazioaren ihardunbidea araupetzen duten arauen arabera berraztertu ahal izatearen kaltetan gabe.

2.- Epaimahaiek ezingo dute dei egindako lanpostuak baino izangai gehiago aukeratu gisa aldarrikatu, mugapen hori hausten duten proposamenak erabat eta berez baliogabeak izango bait dira.

50. artikulua.–

1.– Eusko Jaurlaritzak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak proposatuta, toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartzeko oinarritzko arauak ezarriko ditu, zeinok Ertzaintzan beste horien baliokide diren eskala eta kategorietarako ezarritako antzeko irizpideei egokituko zaizkie.

2.– Toki-erakundeek eskatu ahalko diote Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari, hark aurretik onartzen badu, Udaltzaingoa sartzeko hautaketa-prozedurak batera gauzatzeko, bai eta, hala badagokio, aguazilen edo mugikortasun-agenteen kidegoetan sartzeko ere. Eskaera hori eginez gero, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak berak egingo ditu hautaketa-prozedura horiek.

3.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira epaimahaien osaketa eta plazak esleitzeko formulak.

2. SAILA

AUKERAKETA-SISTEMAK

51. atala.-

1.- Euskal Herriko Polizia osatzen duten Kidegoetan sartzeko, norgehiagoka, lehiaketa edo lehiaketa-norgehiagoka sistemak erabiliko dira, eta horiek aukeraketa-bidearen beste aldi bat izango diren heziketa-ikastaro eta praktika-aldiekin osatuko dira.

2.- Aukeraketa-probak lehiaketa-norgehiagoka sistemaren bidez egiten direnean, lehiaketa-aldiaren balorazioak ezingo du gainditu norgehiagokan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko berrogeitabost, eta lehiaketan lortutako puntuazioa ezingo da erabili norgehiagokako ariketak gainditzeko edo horietan lortutako kalifikazioak aldatzeko.

52. atala.-

1.- Heziketa-ikastaroak eta praktika-aldiak ezingo dira aldi berean burutu, eta bakoitzak nahiz biek elkarturik ezingo dute hogeitamar hilabete baino gehiago iraun.

2.- Beren iharduketa-alorren arabera izangaiaren osoko heziketa alde batetik, eta, bestetik, lan-izendapeneko haren Administrazioaren polizia zerbitzuen egitura eta funtzionamenduaren berarizko ezagupena lortzeko egokienak diren etxe eta egoitzetan burutuko dira praktika-aldiak.

53. atala.-

1.- Heziketa-ikastaroak eta praktika-aldiak baztertze-indarrekoak izango dira, banaka hartuta, eta haiek ez gainditzeak ekarriko du izangaia, berez eta besterik gabe, aukeraketa-bidetik kanpo uztea eta dagokion eskala edo kategoriara sartzeko izan zitzakeen eskubideak oro galtzea.

2.- Aurreko idazatian adierazitakoa horrela izanik ere, ezinbesteko arrazoiak direla eta heziketa-ikastarora edo praktika-aldira sartzen ez diren izangaiek edo horiek bukatzen ez dituztenek burutzen diren hurrengoetan parte hartu ahal izango dute, eragozpenak desagertu ondoren. Ikastaroa eta praktikak antolatu eta burutzeaz arduratzen den organoari dagokio arrazoiak balioestea, eta berak hartu beharko du egoki den erabakia.

54. atala.-

1.- Heziketa-ikastaroetara eta praktika-aldietara iristen diren izangaiak praktika-aldiko funtzionari izendatuko dira, eta egoera horretan egongo dira ikastaroa nahiz praktika-aldia hasten denetik harik eta karrerako funtzionari izendatzen diren arte edo aukeraketa-bidetik baztertzen diren arte.

2.- Praktika-aldiko funtzionarioak direla, sartu nahi duten kategoriako sailkapen-taldeari dagozkion soldata eta ordainketa berezia adinako lansaria jasoko dute, eta horri, praktikak lanpostu batean ihardunez betetzen badira, lanpostu horrentzat esleitutako lansari osagarria gehituko zaio. Hala ere, jadanik Kidego bereko beste kategoria batekoak direnek, bertan iharduneko zerbitzuan ari direlarik, beren jatorriko lanpostuek adierazita lituzketen lansari berak izango dituzte, baldin eta idazati honetan oharmandakoak jasotzea aukeratzen ez badute.

3.- Ikastaroak eta praktika-aldiak dirauten bitartean, edo horiek bukatzerakoan, behar adina medikuntza-alorreko proba egitera behartu ahal izango dira izangaiak, kategoriara sartu ahal izateko ezarrita dagoen medikuntza-arrazoiengatik bazterketen taulari egokitzen zaizkion ala ez egiaztatzeko. Egindako probetatik bazterketarako arrazoiren bat dagoelako ondorioa ateratzen baldin bada, izangaia aukeraketa-bidetik baztertzeko proposatu ahal izango du organo arduradunak, gaixotasunaren edo akats fisikoaren larritasunaren arabera, eta izendapena egitea dagokion organoak hartuko du egoki den erabakia.

55. atala.-

Ikastaroaren eta praktiken arduradunak diren heziketa-etxeek emandako kalifikazioak behartze-indarrekoak izango dira karrerako funtzionari izendatzea dagokien Administrazio organoentzat, horrek Administrazioaren ihardunbidea araupetzen duten arauen arabera berraztertu ahal izatearen kaltetan gabe.

55 bis artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kidegoetako funtzionarioak izateko txanda libreko hautaketa-probetan onartua izateko, euskal enplegu publikoa arautzen duten legeetan aurreikusitako betekizunak bete beharko dira, berezitasun hauekin:

a) 18 urte beteta izatea. Agente-kategorian sartzeko, 38 urte beteta ez izatea; nolana ere, muga hori Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kidegoetan emandako zerbitzuekin konpentsatu ahal izango da.

b) Ez izatea dolozko delituagatik kondenatua, ezta Administrazio publiko baten zerbitzutik bereizia edo funtzio publikoak egiteko ezgaitua ere; hargatik eragotzi gabe birgaitua izateko aukera, arau penalen eta administratiboaren arabera.

c) Sartu beharreko kategorian eskatu behar den titulazioa izatea.

d) Erregelamenduz ezartzen diren medikuntzako bazterketen taulan ez egotea.

e) Erregelamenduz ezartzen den gutxieneko garaiera izatea; ezberdina izango da emakumeentzat eta gizonezkoentzat.

f) Deklarazioaren bidez armak eramateko konpromisoa hartzea eta, hala badagokio, erabiltzeko.

g) Deialdi bakoitzean zehazten den gidabaimen mota edukitzea.

h) Bestelako eginkizun espezifikoak, deialdian aurreikusitako bete beharreko eginkizunekin eta lanekin harreman objektiboa dutenak.

2.– Aipatutako baldintzak, beraz, eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik bete beharko dira, g) letrakoa izan ezik, deialdi bakoitzean zehaztutako egunerako eduki beharko baita.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia osatzen duten kidegoetako eskala eta kategorietan barne-sustapenez sartzeko hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da lege honetako 59. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzea.

3. SAILA

EUSKAL HERRIKO POLIZIA KIDEGOETAN SARTZEA

56. artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia osatzen duten kidegoetako agente-kategoriarako sarbidea txanda askearen bidez izango da, oposizio edo lehiaketa-oposizio bidez.

2.– Komisariondoko-kategoriarako sarbidea barne-sustapenez eta txanda aske bidez izango da, oposizio-, lehiaketa- edo oposizio eta lehiaketa-sistemen bitartez, eta txanda aske bidez betetzeko erreserbatu ahal izango dira, gehienez, hutsik dauden plaza guztien ehuneko berrogeita hamar. Barne-sustapen bidez bete gabe geratzen diren plazak txanda askera bideratutako gehituko zaizkie, azken sistema hori aplikagarria denean. Txanda askean hutsik geratutako plazak barne-sustapenera bideratutako plazei gehituko zaizkie.

3.– Gainerako kategorietarako sarbidea barne-sustapen bidez izango da, oposizio-, lehiaketa- edo oposizio eta lehiaketa-sistemen bidez.

4.– Erregelamendu bidez arautuko da txanda aske bidez iragarritako plaza hutsen ehuneko bat Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren beste kidego edo zerbitzu batzuetako langile funtzionarioen artean lehiaketa-oposizio bidez betetzeko aukera. Horretarako, langile funtzionario horiek deialdiaren xede den plazaren kategoria berekoa den plaza batean egonak izango dira gutxienez bost urte efektibotan, edo bi urtean, oinarrizko eskalako agente-kategorian. Txanda horretan bete gabe geratzen diren plazak txanda askeko plazei gehituko zaizkie, hala dagokionean.

57. atala.-

Barne-aurrerabideko txandan betetzen ez diren lanpostuek txanda libreko deialdiko kopurua gehituko dute, azken sistema hori aplikatzea dagokionean. Txanda librean bete gabe gelditzen diren lanpostuak barne-aurrerabideko txandako deialdikoei gehituko zaizkie.

58. artikulua.–

1.– Jatorrizko eskalaz besteko kategoria edo eskaletarako barne-sustapenean, beharrezkoa izango da txanda aske bidez sartzeko ezarritako proba berberak gainditzea, barne-sustapena eta txanda askea, biak daudenean. Hala eta guztiz ere, barne-sustapen bidez lehiatzen direnak salbuetsi ahal izango dira zenbait proba, prestakuntza-jarduera edo praktikaldi egitetik, jatorrizko kategorian sartzeko eskaturiko ezagutzak egiaztatzea bideratuak direnean, edo lanbidearen jardunean egiaztatu direnean, baldin eta hala zehazten bada deialdiaren oinarrietan.

2.– Eskala beraren barruko beste kategoria baterako barne-sustapenean, beharrezkoa izango da deialdian ezarritako merezimendu-baloraziodun hautaprobak gainditzea, eta ezin exijituko da prestakuntza eta praktikaldi bat gainditzea, non eta ez den hala zehazten deialdiaren oinarrietan.

59. artikulua.–

1.– Barne-sustapeneko txandan lehiatzeko, dagokion kategorian sartzeko ezarritako dauden baldintza orokorrak bete beharko dituzte funtzionarioek; arau honek jasotzen dituen egoera administratiboetan egon eta exijitu daitezkeen zerbitzu-urteak eginak izan, kasuaren arabera, hartu nahi den kategoriaren azpitik hurrena dagoen kategorian edo eskalan, eta batzordeak zehapenik ezarri ez izana falta astunagatik edo falta oso astunagatik, edo, zehapenik ezarri bada, zehapen hori baliogabetuta egotea.

2.– Hauek dira barne-sustapenaren bidetik lehiatzeko gaitzen duten egoera administratiboak: jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezietan egotea, bai eta eszedentzia-egoeran ere, seme-alabak

edo senitartekoak zaintzeko, edo genero-indarkeriagatik.

3.– Hauek dira, kasu bakoitzean, hartu nahi den kategoriaren azpitik hurrena dagoen kategorian edo eskalan eginak behar diren zerbitzu-urteak, barne-sustapenaren bidetik lehiatu ahal izateko:

a) Agente lehenen kategorian sartzeko, hiru urte egiazko zerbitzuetan oinarrizko eskalako agente gisa.

b) Ofizialorde edo ofizial kategorietan sartzeko, lau urte egiazko zerbitzuak egiten oinarrizko eskalako kategoriaren batean.

c) Komisariondoko edo komisario kategorietan sartzeko, lau urte egiazko zerbitzuetan ikuskapen eskalako kategoriaren batean, eta horietatik bi, gutxienez, ofizial-kategorian.

d) Intendente kategorian sartzeko, lau urte egiazko zerbitzuetan, eskala betearazleko kategoriaren batean.

4.– Jatorrizko kategorian edo eskalan egindako egiazko zerbitzuen denbora kalkulatzeko, barne-sustapenerako sarbidea ematen duten egoera administratiboetan egindako denborari gehituko zaio kategorian edo eskalan sartu aurretik egindako praktikaldiaren denbora, baldin eta hautaketa-prozesua gainditu bazen.

59 bis artikulua.–

1.– Ertzaintzako fakultatibo eta teknikarien eskalarako sarbidea izango da oposizio-, lehiaketa- edo lehiaketa eta oposizio-sistemen bidezkoa, Ertzaintzako langile funtzionarioen barne-sustapen gisa. Hala eta guztiz ere, plazak ez badira betetzen barne-sustapenaren bidetik, txanda aske bidez egin ahalko da deialdia.

2.– Ertzaintzako fakultatibo eta teknikarien kidegoan Ertzaintzaren beste eskaletako batetik sartzeko, beharrezkoa izango da jarduneko zerbitzuan izatea kidegoko beste eskalaren batean; kategorian horretan bi urtez egiazko zerbitzuetan jardun izana eta batzordeak zehapenik ezarri ez izana falta astunagatik edo falta oso astunagatik, edo, zehapenik ezarri bada, zehapen hori baliogabetuta egotea.

3.– Ertzaintzako fakultatibo eta teknikarien eskalara sartzen diren langileek parte hartu ahal izango dute eskala horretan sartu aurretik zeukaten kategoriako lanpostuak betetzeko eta barne-sustapeneko deialdietan.

III. IDAZPURUA

EUSKAL HERRIKO POLIZIAKO KIDEEN ESTATUTU-ARAU BIDEA

I. ATALBURUA

FUNTZIONARI IZATERA IRISTEA ETA FUNTZIONARI IZATEARI UZTEA

60. atala.-

Euskal Herriko Polizia Kidego desberdinetako karrerako funtzionari izatera, haietako eskala edo kategorietakoak diren eta aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostuetara sartzekoan iristen da, honako eskakizun hauek bata bestearen ondotik bete beharko direlarik:

a) Aukeraketa-bidea gainditzea.

- b) Aginpidedun agintariak izendapena egitea.
- c) Lanpostuaz jabetzea araudiz ezarrita dagoen epearen barruan.

61. atala.-

1.- Funtzionario-izaera euskal administrazio publikoetako enplegatuei aplikatzen zaizkien lege orokorretan aurreikusitako arrazoiengatik galduko da.

2.- Honako hauek ere utziko diote funtzionari izateari:

a) Edozein administrazio-egoeratan gehieneko iraunaldia bete ondoren edo hori aldarrikatzea eragin zuen arrazoia desagertu ondoren iharduneko zerbitzura nahiz bigarren iharduerara itzultzea eskatzen ez dutenek, norbere interesagatiko borondatezko lan-utzialdiko egoera lortzeko beharrezkoa den benetako zerbitzu-aldirik ez dutelarik.

b) Derrigorrezko lan-utzialdiko egoeran daudelarik, lanpostuak betetzeko lehiaketetan parte hartzen ez dutenek edo iharduneko zerbitzura nahiz bigarren iharduerara itzultzen ez direnek, Administrazioak hala agindu arren, norbere interesagatiko borondatezko lan-utzialdiko egoera lortzeko beharrezkoa den benetako zerbitzu-aldirik ez dutelarik.

62. artikulua.-

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako funtzionarioen erretiroa euskal enplegu publikoa arautzen duten legeetan aurreikusitako eran egiten da, Gizarte Segurantzaren arauak Ertzaintzarako edo udaltzaingotarako aurreikus ditzaketen berezitasunekin.

2.- Bidezkoa izango da erretiroa hartzea, erretiroa hartzeko datan betetzen zuen lanpostua erreserbatuta, baldin eta, aplikagarria zaion aurreikuspen sozialeko erregimenarekin bat etorriz, ezintasunerako hasierako aitortzan ezintasun hori gerora errebisatu beharra ezarri bazen, gehienez bi urteko epean lanera itzultzeko bidea emango lukeen hobekuntza gertagarria zelakoan.

63. atala.-

1.- Diziplinazko zigor baten ondorioz funtzionari izateari uzten diotenak funtzionaritzarako birgaitu ahal izango dira, Kidegora itzuliz jatorriko eskala eta kategoria berean. Horretarako, zigor-legezko aurrekinak, horrelakorik izanez gero, baliogabetu direla egiaztatu beharko dute, bere gain hartu behar izan dituzten erantzukizunak bete dituztela eta birgaikuntza erabakitzeke aginpidedun den organoaren ustez onura hori merezi izateko jokabidea izan dutela.

2.- Herrizaingo Sailburuak edo dagokion toki-erakundeko Alkateak erabakiko du birgaikuntza, eta ezingo da eman diziplinazko zigorra sendetsi eta sei urte igaro arte. Birgaikuntzarako eskaera ezesten baldin bada, ezingo da berriz egin bi urte pasa arte.

3.- Interesdunak gehienez hilabeteko epearen barruan itzuli beharko du iharduneko zerbitzura, birgaikuntza agintzen duen erabakia edo ebazpena jakin erazi ondoko egunetik kontatzen hasita. Horrela egin ezik, eta ezinbesteko arrazoiengatik ez bada, bere eskubidea galduko du eta emandako birgaikuntza baliorik gabe geldituko da.

II. ATALBURUA

LANPOSTUAK BETETZEA

64. atala.-

Orohar, lanpostuen atxikipena lanpostuei dagozkien eskala eta kategoria dituzten funtzionari

guztien artean bereizketarik gabe egingo da, haiek betetzeko eska daitezkeen betekizun berezien, burutu beharreko zereginen izaeraren ondorio izan eta dagozkien lanpostu-zerrendetan oharmandakoen kaltetan gabe.

65. atala.-

1.- Lanpostu-betetzea merezimendu-lehiaketa eta izendapen librea deritzen sistemen bidez egingo da, lanpostu-zerrendetan ezarritakoaren arabera.

2.- Lehiaketa da lanpostua betetzeko ohiko sistema. Lehiaketan, hautagaien gaitasunak lanpostuaren eginkizunetara egokitzen diren baloratuko da.

Lanpostuak betetzeko deialdietan baloratu beharreko merezimenduak definituko dira, zeinen artean hauek egongo baitira: antzintasuna, gradu pertsonal zehatz bat edo garapen profesionalaren gradu jakin bat izatea –hala badagokio–, garatutako lanaren balorazioa eta euskararen ezagutza-maila egiaztatua, hura bete beharreko baldintza ez denean.

Era berean, deialdian hala ezartzen denean, hauek guztiak ere agertu ahalko dira: prestakuntza-eta hobekuntza-ikastaroak; titulazioak eta gradu akademikoak; hizkuntzen ezagutza edo irakaskuntza-eta ikerkuntza-jarduera eta bete beharreko lanpostuak berezko dituen ezaugarrien arabera egokiak izan daitezkeen guztiak.

Orobat, eta egin beharreko eginkizunen izaera kontuan hartuta, hautagaiak lanpostuaren ezaugarri espezifikoetara egokitzen diren ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen diren probak ezarri ahalko dira deialdietan.

3.- Izendapen librearen sistemaz bete ahalko dira soilik lanpostu-zerrendetan hala hornitzeko gordetako lanpostuak, ardura berezikoak izateagatik, eta lanpostuak betetzeko konfiantza pertsonala ezinbestekotzat dutenak. Hala ere, hornidura modu horretarako gordetzen diren lanpostuak ezin dira izan plantilla osoaren % 7a baino gehiago.

Zehazki, honako hauek hornitu ahal izango dira izendapen librearen bidez:

a) Polizia-kidegoetako goi-eskaletako gordetako buruztetako postuak.

b) Eskala betearazlerako gordetako buruztetako postuak, unitate berean ez badaude izendapen libreko eta eskala bereko beste postu baten mende. Hala ere, hornidura mota horretarako gorde ahalko dira eskala bereko postuak, modu espezifikoan inteligentzia-zereginetan aritzen badira edo agintariak babesteko jarduerak koordinatzen.

c) Oinarrizko eskalako eta ikuskapen-eskalako postuak, salbuespen gisa horrela xedatzen bada lanpostuen zerrendan, ardura bereziagatik edo konfiantza bereziagatik, guztira lanpostu guztien % 6ko muga gainditzen ez bada, bi eskalak gehituta.

Lanpostuak izendapen librez betetzeko deialdiak publikoak izango dira, eta publiko egingo da zer gaitasun profesional behar den deialdiaren xede den lanposturako. Izendapen librean, organo eskudunak bere iritzia araberako balorazio bat egiten du hautagai diren pertsonen egokitasunari buruz, lanpostu jakin batean jarduteko eskatutako baldintzen argitan, eta, horretarako, egin daitezke curriculumaren balorazioak, egokitasun-txostenak, elkarrizketak edo hautagai diren pertsonen egokitasuna egiaztatzeko egoki den beste edozein ebaluazio-prozedura. Nolanahi ere, deialdietan kontuan hartuko diren egokitasuneko alderdi eta elementuak aipatu beharko dira.

4.- Merezimendu-lehiaketaren bidez lortutako destinoak ukaezinak dira. Ezin izango da merezimendu-lehiaketa batean parte hartu bi arte igaro arte lekualdatze-lehiaketa deitzeko ebazpena eman zenetik, zeinean funtzionarioak bere behin betiko destinoa lortu baitzuen. Denbora-muga hori ez zaie aplikatuko behin-behineko atxikipenaren egoeran daudenei, egoera hori ez bada eratorri postuari

uko egitetik, 70. artikuluko c) paragrafoan ezarritakoaren arabera.

5.- Lanpostu bati atxikitako funtzionarioek, lanpostu hori gutxieneko iraunaldi berezi baten menpean dagoenean, ezin izango dute lanpostuak betetzeko beste deialdietan parte hartu, kasu bakoitzerako ezarritako denboran, aurreko idazatian aipatutako salbuespena gertatzen ez bada, edo funtzionarioek menpekotasunaren ezaugarri eta arrazoi berberak dituen beste lanpostu bat lortu nahi ez badute behintzat.

65 bis artikulua.–

1.– Lanpostuak hornitzeko ezarritako prozeduren bidez beteko dira espezialitatea eduki behar duten lanpostuak, dagokion espezialitatea dutenen artean.

Espezialitate-ikastaroen deialdiak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eta Administrazio eskudunak batera egiten dituztenean, ikastarook gainditzen dituztenei esleituko zaizkie espezialitatean hutsik dauden lanpostuak, behin betiko esleitu arte.

2.– Espezializazio hori behar duten eta hutsik dauden lanpostu guztietara aurkeztera eta lehenetsunez eskatzera behartuta egongo dira dagokion espezialitate-ikastaroa gainditu dutenak, gainditu dutenetik egiten den lehenengo deialdian. Hori egin ezean, derrigorrez atxiki ahalko dira hutsik dagoen edozein lanpostura.

3.– Espezializazioa behar duten lanpostuek gutxieneko eta gehieneko presentzia-denbora eduki ahalko dute lanpostu-zerrendan.

66. artikulua.–

Langileek bigarren jarduera gisa bete ditzaketen lanpostuak bete nahi direnean, lehenetsuna izango dute egoera administratibo hori aitortuta duten funtzionarioek.

67. atala.-

1.- Lanpostuak betetzeko deialdiak, lehiaketaren bidezkoak nahiz izendapen librearen bidezkoak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo, deialdia toki-erakunde batena denean, dagokion Lurralde Historikoko Aldizkarian, eta nahitanahiez honako puntu hauek jasoko dituzte:

a) Lanpostuaren izena, kokapena, maila eta berarizko osagarria.

b) Lanpostuan iharduteko eskatzen diren betekizunak.

c) Eskaerak aurkezteko epea; horrek, dagokion Aldizkarian argitaratuko den egunetik hasi eta hamabost egun baino gutxiagokoa izaterik ez du izango.

d) Merezimendu-lehiaketaren bidezko prozeduren kasuan, merezimendu-baremoa, sartzen diren proba espezifikokoak, postua eskuratzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa eta hautaketa-batzordearen osaera.

2.- Deialdiaren ebazpena aurreko idazatian oharmandako moduan argitaratuko da, berariz salbuesten diren lanpostuena izan ezik. Salbuesten diren lanpostu horien ebazpena ez da argitaratuko, lanpostu horietan burutu beharreko zereginen berezko izaerak isilpean eta ezkutuan gorde beharra berekin badakar, doakienei banakako jakinerazpena egitearen kaltetan gabe.

68. atala.-

1.- Lanpostu bereziztat joko dira beren edukiarengatik edo haietan iharduteko eskatzen diren

baldintza bereziengatik dagozkien lanpostu-zerrendetan banakatzen direnak edo gainerako lanpostuetatik desberdintzen direnak.

2.- Berezitu gabeko lanpostuetan diharduten funtzionariak eskala eta kategoria bereko beste lanpostu baterako izenda daitezke zerbitzuaren premiengatik; lanpostu hori maila eta berarizko osagarri berekoa izango da eta ezin izango du bizileku ofizialaren aldaketarik berekin ekarri.

69. atala.-

1.- Sartu berri diren funtzionariak lanpostuei atxikiko zaizkie aukeraketa-bidearen behin -betiko sailkapeneko lehentasun-hurrenkerari jarraiki, eta funtzionariak adierazitako lehentasunen arabera, baldin eta lanpostuak betetzeko eska daitezkeen beharkizunak betetzen badituzte.

2.- Barne-aurrerabidez iristen diren funtzionariak eskala eta kategoria berriei dagozkien lanpostuei atxikiko zaizkie, eta txanda libretik heldutako izangaien aldean lehentasuna izango dute bete beharko liratekeen lanpostu hutsen artean aukeratzekoan.

3.- Aurreko idazatietan aipatu diren funtzionariak ezin izango dute parte hartu lanpostuak betetzeko egiten diren hurrengo deialdietan haien jabetza hartutako unetik bi urte igaro artean. Behin-behineko atxikipeneko egoeran daudenei ez zaie epe hori aplikatuko, egoera hori 70. ataleko 2 c) lerroaldian ezarritakoaren arabera lanpostuari uko egiteak sortua ez bada behintzat.

70. atala.-

1.- Estatutuzko erlazioaren egonkortasunaren kaltetan izan gabe, lanpostu batean ihardutea ez da funtzionariaren eskubide bereganatua.

2.- Lanpostu batekiko atxikipena uzteko arrazoiak hurrengo hauek izango dira:

a) Lanpostu-zerrenda bidez ezabatzea.

b) Beste lanpostu baterako izendatzea.

c) Lanpostuari uko egitea, aginpidedun organoak onartzen badu.

d) Iharduneko zerbitzuko edo bigarren iharduerako egoera uztea, hiru salbuespen dituela: zerbitzu berezietara igarotzen diren funtzionariak, sei hilabete baino epe laburragoko sendetsitako zeregin-geldialdia izan dutenak eta haur bat zaintzeagatik hartutako borondatezko lan-utzialdiko lehen urtean daudenak.

e) Bigarren iharduerako egoerara igarotzea, edozein izanik ere funtzionariaren administrazio-egoera eta lanpostua gordetzeaz egoera horri aitortzen zaion esku-bidea, funtzionariak zuen lanpostuan bigarren iharduerako langileek ihardun ez badezakete behintzat.

f) Gehieneko iraunaldia betetzea.

g) Enkaitzea.

3.- Lanpostu bati uko egiteko eskabideak eta onarpenak arrazoituak izan beharko dute, eta ohiz kanpoko kasuetan eta lanpostuko iharduna eraginkortasunez burutu ezina ziurtatzen bada bakarrik erabaki daiteke onarpena.

4.- Lehiaketa bidez lanpostu batera iristen diren funtzionariak gersortutako arrazoiengatik enkaitu daitezke: batetik, deialdiaren oinarri izandako baldintzak eta lanpostuaren edukia lanpostu-zerrenden bidez aldarazten dituen aldaketa batetik sortutako arrazoiengatik; edo, bestetik, lanpostuak izendatuak dituen zereginak eraginkortasunez betetzea galerazten duen eta emankortasun urrian ezagun den

gaitasun-faltagatik. Enkaitzea izendapena egin zuen organoaren arrazoitutako ebazpen bidez burutuko da, kontraesaneko espedientearen ondoren.

6.- Izendapen librearen bidez lanpostu bati atxikita dauden funtzionariak aukerakotasunez enkaitu daitezke beren lanpostuetatik.

71. atala.-

1.- Lege honetako 70. ataleko 2. idaztiaren a), c), f) eta g) lerroaldietan eta 6. idaztarian xedatutakoaren indarrez beren lanpostua utzi behar duten funtzionariak dagozkien eskala eta kategoriako beste lanpostu bateko ihardunari atxikiko zaizkio behin-behineko.

2.- Funtzionariak, lehengo lanpostua utzi edo enkaituak izan direlako, postua ezabatu delako edo gehieneko iraunaldia bete delako, lanpostu bati behin-behineko atxikita daudenean, egiten den hurrengo lehiaketan, eta behin soilik, lehentasun-eskubidea izango dute herri berean suertatzen diren lanpostu hutsak betetzeko, baldin eta lanpostu huts horiek ezabatutako edo lehen izandako postuaren lan-izendapenagatiko osagarri-maila bera edo txikiagoa badute.

3.- Lanpostu bat behin-behinean betetzen duten bitartean, funtzionarioek lanpostu horri dagozkion ordainsari osagarriak jasoko dituzte eta, horrela badagokio, kategoriari dagokion destinoko osagarria, Ertzaintzaren kasuan, edo kontsolidatuta dutena, Udaltzaingoa kasuan.

Hala eta guztiz ere, behin-behineko atxikipena lehen betetako lanpostua ezabatzearen ondoriozkoa denean, eta lanpostu berriari esleitutako ordainsaria amortizatuarena baino txikiagoa bada, funtzionarioak bien arteko aldea besteko osagarri iragankorra jasoko du. Osagarri hori mantenduko da interesdunak parte hartzen duen edo parte har dezakeen lehen lehiaketara arte.

4.- Behin-behineko atxikipeneko egoeran dauden funtzionariak, egoera horretan daudeino, behartuta daude beren Kidego edo eskalari dagozkion lanpostuak betetzeko deitzen diren lehiaketetan parte hartzera, bete ditzaketen lanpostu huts guztiak eskatuz. Honela egin ezean, haietako edozeini atxiki dakizkioke derrigortasunez.

5.- Espezialitate jakin bati lotuta daudela erregelamenduz ezarrita duten lanpostuen kasuan, 70.2.f) artikuluan aurreikusten den arrazoiarengatik lanpostua utzi behar izan duen pertsonak osagarri pertsonal bat izango du, baldin eta aldi horretan aipatu lanpostuetan egiazko zerbitzuan egon bada. Osagarri pertsonal hori izango da utzi behar izan duen lanpostuaren berariazko osagarri bereziaren eta behin behingoz edo behin betikoz hartzen duen postuari dagokionaren arteko aldea bestekoa.

72. atala.-

1.- Ohiz kanpoko kasuetan, eta lanpostuak gordetzen zaizkiela, funtzionariak zerbitzu-manualdirako izenda daitezke beren eskala edo kategoriako beste lanpostuetan iharduteko edo atxikita dauden lanpostuko berarizko zereginak ez diren beste batzuk burutzeko. Halaber, eskala eta kategoria batean behar hainbat funtzionari ez badago, eta zerbitzuaren premiek hala eskatzen badute, zerbitzu-manualdiak eman daitezke funtzionariak berea ez duen kategoria bateko lanpostuetan edo zereginetan ihardun dezan, baina beti ere eskala berean edo gaineko hurrengoan aritu beharko du.

2.- Zerbitzu-manualdian norbere gogoz ihardungo da, baina, hala ezin izango balitz, derrigortasunez eman litezke, beharrianak premiazkoak eta luza ezinezkoak direnetan eta doakionaren entzunaldiaren ondotik.

3.- Zerbitzu manualdiaren iraupena ez da hiru urte baino gehiagokoa izango, berarizko zerbitzuetan duharduen titularraren lantokietakoa denean salbu, eta jaurpide horretan izendatu beharreko lanpostuak agirikoak izango dira, ustez horiek bete nahiko dituztenek ezagun ditzaten.

4.- Zerbitzu-manualdian dagoen funtzionariak bere kategoriari dagozkion oinarritzko lansariak eta iharduten den lanpostuari dagozkion sari osagarriak jasoko ditu. Hala ere, manu-aldia derrigortasunez eman balitzaio eta iharduten den lanpostuan bere lanpostuarena baino lansari txikiagoa balu, bien artean legokeen aldeagatik osagarri bat jasoko luke doakionak egoera honetan diraueno.

5.- Zerbitzu-manualdia, lanpostu bati zehazki esleituta ez dauden zeregin bereziak burutzeko edo dagozkien lanpostuen jabeek egoera jakin batean ezin burutu dituzten zereginak egiteko ematen denean, funtzionariak bere lanpostuak izendatuta dauzkan lansariak jasoko ditu, lege honetako 74.1.b) atalaren bigarren lerroaldean ezarritakoaren aurka jarri gabe.

6.- Zerbitzu-manualdia aukerakotasunez ezeztatu dezake eman zuen organoak, eta honela beteta egon diren lanpostuak beren araudiaren arabera betetzeko eskaini beharko dira egiten den lehen lehiaketan.

73. atala.-

1.- Ertzaintzako eta Udaltzaingoetako lanpostuak, bateko zein besteko funtzionariak bete ditzakete, lanpostu-zerrendetan zehazki oharremanda dauden baldintzen pean, baldin eta, atal honen 3. idazatiak dioenaren arabera, haien kategoria lanpostu hutseko ihardunarentzat jarritakoaren baliokidea bada eta kasurako ezartzen den heziketa-maila bada.

2.- Funtzionariak, aurreko idazatian oharremandakoaren indarrez beste Administrazio publiko bateko lanpostu bat betetzera igarotzen badira, jatorriko Administrazio funtzionari-egoera gordeko dute.

Funtzionariak lan-izendapeneko Administrazioarekin bere erlazio funtzionalari eusten dion bitartean, azken honetan indarrean dagoen legedia aplikatuko zaio eta, bereziki, lanbide-aurrerapenari, administrazio-egoerei eta lansari eta diziplina araubideari buruzko arauak, zerbitzutik behin-betirako baztertzeko zigorra izan ezik, hau jatorriko Administrazio aginpidedun organoak erabaki beharko bait du.

Dena dela, funtzionariak lan-izendapeneko Administrazioarekin duen erlazioa berez eta besterik gabe iraungita geldituko da, lege ezarritako mugikortasun-bideen indarrez beste Administrazio publiko bateko lanpostu batean ihardutera igarotzen denean.

3.- Eusko Jaurlaritzak araudiz zehaztuko du Euskal Herriko Polizia Kidego guztietako kategorien arteko baliokidetasuna, bai eta jatorrikoa ez den beste Kidego batean kategoria bereko lanpostuak betetzeko eska daitekeen heziketa-maila. Poliziara sartzeko gainditu diren betekizun eta probei nahiz egin nahi diren heziketa eta trebakuntza aldiei begira zehaztuko da heziketa-maila, ezarri daitezen gaikuntza-ikastaro osagarrien kaltetan gabe; gaikuntza-ikastaro horien antolakuntza Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokiola.

II BIS KAPITULUA

KARRERA PROFESIONALA

73 bis artikulua.–

1.– Segurtasun Sailak eta udalerriek lanbide garapenerako sistemak ezarri ahal izango dituzte beraien udaltzaingoen pertsonalaren jardunerako, horien lan-jarduera eta jokabidea ebaluatzearen ondorioz.

2.– Ezarriko den sistema aplikatu ahal izango zaie zerbitzu aktibo edo bigarren jarduneko administrazio-egoeretan dauden funtzionarioei.

3.– Lanbide-garapenerako sistemak, betiere, bi fase izango dituzte:

a) Mailaketa-fasea.

b) Jardunaren urteroko ebaluazioaren fasea; hori gainditzea ezinbestekoa da aitortutako mailari dagozkion ordainsariak jasotzeko.

4.– Ezarriko diren lanbide-garapenerako sistemak lau mailatan artikulatu beharko dira lanbide-
eskala bakoitzeko, dagokion maila eskatzeko behar diren antzinasun-urteen arabera.

Maila Antzinasun-urteak

I. maila: 5 urte edo gehiago

II. maila: 11 urte edo gehiago (+6)

III. maila: 17 urte edo gehiago (+6)

IV. maila: 25 urte edo gehiago (+8)

5.– Mailaketa prozesurako gainditu beharko da horretarako sortutako organo teknikoek egindako ebaluazioa, administrazio publiko bakoitzeko lanbide-garapena erregulatuko duen araudiarekin bat etorritz; ebaluaziorako, gutxienez, faktore hauek kontuan hartuko dira:

a) Lanbide-jarduera.

b) Lanbide-gaitasun eta -kualifikazioa.

c) Inplikazioa eta konpromisoa antolakuntzarekin.

73 ter artikulua.–

1.– Lanbide-garapeneko mailaketa egiteko eskabidea borondatezkoa izango da.

2.– Mailaketa hori ezetsia baldin bada ebaluazioa gainditu ez delako, bi urteko epea igaro beharko da beste eskaera bat egiteko.

3.– Mailaketa eskatzeko deialdi bakarra izango da urtero; eskatzen diren antzinasun-urteak beteta dituztenek eskaera aurkeztu ahal izango dute kasu bakoitzean aurreikusitako urte kopurua betetzen duten urtearen hasieran.

73 quater artikulua.–

1.– Eskuratutako mailak galdu egingo dira ondorengo arrazoi hauengatik:

a) Falta astun edo oso astunagatik zigortua izatea sei hilabete edo gehiagoko eperako.

b) Bere ardurapeko pertsonalaren ebaluazioa egiteari uko egitea.

c) Dagokion polizia-kidegoko funtzionario-izaera galtzea.

d) Borondatezko eszedentzia egoerara igarotzea interes partikularrarengatik.

2.– Aipatutako arrazoiengatik lortuta zeukan maila galtzen duen funtzionarioak hurrengo urteroko deialdian eskatu ahal izango du berriz aitortzea lortutako maila, ondorengo kasu hauetan:

a) Aurreko apartatuaren a) letran adierazitako zehapena bete ondoren.

b) Bere ardurapeko pertsonalaren ebaluazioa egiteari uko egin duenetik urtebete igaro ondoren,

aurreko apartatuaren b) letraren kasuan.

c) Funtzionario-izaera berreskuratzea.

d) Aurreko apartatuaren d) letran adierazitakoari dagokionez, zerbitzu aktibora edo bigarren jardunera itzultzea.

73 quinquies artikulua.–

1.– Lanbide-garapeneko maila aitortzearen ondorioz, lanbide-garapeneko osagarria jasoko da urtero lanbide-karreraren osagarri gisa. Osagarri hori lotuta egongo da jardun profesionalaren ebaluazioa gainditzeari, erregelamenduz ezarriko diren baremoen arabera. Baremo horien artean honako hauek kontuan hartu beharko dira: lanbide-jokabidea, emaitzak lortzea eta ordutegia bete eta lanera joatearen maila.

2.– Betiere, aitortutako maila bakoitzak eragin ekonomikoak izango ditu mailakatze-prozedura hasten den dataren hurrengo urtearen urtarrilaren 1etik aurrera.

3.– Funtzionario bat kategoria altuago batean sartzeak ez dauka eraginik aitortuta daukan lanbide-garapenaren mailan ez bada maila altuago batean mailakatzen.

4.– Inoiz ere ezin izango da jaso aldi berean lanbide-kategoria bat baino gehiagoko garapen-osagarria.

5.– Lanbide-garapenaren aitortza norberaren kategoriari bakarrik eragingo dio, nahiz eta kategoria altuagoko funtzioak bete izan arren.

III. ATALBURUA

LANSARIAK

74. artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia osatzen duten kidegoetako funtzionarioen egitura eta ordainsarien erregimena Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako funtzionarioei aplikatzen zaien legedian ezarritakoaren arabera izango da, lege honetan ezartzen diren berezitasunekin, zeinak Ertzaintzaren kidegoari aplikatzekoak baitira.

2.– Ertzaintzaren ordainsari osagarriak berezitasun hauen arabera dira:

a) Destino-osagarria da funtzionarioaren kategoriaren mailari dagokion ordainsari osagarria, eta Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek urtero zehaztuko dute horren zenbatekoa, eta lanpostuak eskala hauetan sailkatzen dira: goren, betearazlea, ikuskapeneko eta oinarrizkoa, zazpi mailatan, eskala honen arabera:

- Agente-kategoria: 1. maila
- Agente lehenaren kategoria: 2. maila
- Ofizialorde-kategoria: 3. maila
- Ofizial-kategoria: 4. maila
- Komisariondoko-kategoria: 5. maila
- Komisario-kategoria: 6. maila

– Intendente-kategoria: 7. maila.

Fakultatiboen eta teknikarien eskalako lanpostuak erregelamendu bidez klasifikatzen dira euskal administrazio publikoen lanpostuetarako ezarritako mailaren batean; mailok beren sailkapen-taldekoak izan beharko dute.

b) Berariazko osagarri orokorrak ordaintzen ditu arriskua, arduraldia eta Ertzaintzaren kidegoko lanpostu guztietan ageri diren berezitasun guztiak. Haren zenbatekoa, kategoria bakoitzarentzat, Gobernu Kontseiluaren akordio bitartez zehazten da.

c) Berariazko osagarri berezia, edo lanpostuarena, bakarra izango da lanpostu-zerrendan osagarri hori esleituta daukan lanpostu bakoitzarentzat, eta soil-soilik ordainduko ditu lanpostu hori ezaugarritzen duten baldintza bereziak, aintzat harturik kasuan kasuko zailtasun tekniko berezia, erantzukizuna, arduraldia, nekagarritasuna edo arriskua, edo lanpostu horren beste edozein baldintza. Haren zenbatekoa lanpostuen balorazio eta azterketatik eratorriko da, eta ezin izango du gainditu, eskala bakoitzean, eskala horren azpitik hurrena dagoen kategoriari dagozkion elementu hauen baturaren % 35a: oinarrizko soldata, aparteko ordainsariak, destino-osagarria eta berariazko osagarriaren osagai orokorra.

d) Buruzagitza-osagarriak ordaintzen du eskala goreneko eta betearazleko postuen aginte-egoera berezia, berekin baitituzte segurtasun publikoko politikak formulatzeko parte-hartzea, goi-ordezkaritza instituzionaleko funtzioak hartu beharra, pertsonak eta baliabideak autonomia maila handiz zuzendu eta kudeatu beharra, eta beste edozein jarduerarekin bateragarritasun deklarazioa eragozten duen arduraldia. Haren zenbatekoa berdin-berdina izango da eskala horietako postu guztietan; Gobernu Kontseiluak zehaztuko du, eta ezin izango da ondorengo baturaren % 30etik gorakoa: oinarrizko soldata gehi eskala betearazlearen beheko mailari dagokion oinarrizko soldatari dagozkion aparteko ordainsarien zatia.

3.– Lanbide-garapeneko osagarria urtero jasoko da Ertzaintzan produktibitate-osagarriaren parte gisa, eta lotuta egongo da lanbide-garapeneko sistemaren mailetan aurrera egitearekin eta, jardun profesionalaren ebaluazioa gainditzearekin, lege honetako 73 quinquies artikuluan aurreikusitako terminoetan.

4.– Ezohiko zerbitzuengatik ordaindutako haborokinak ez dira finakoak izango, ez zenbatekoan ez epeetan, laneko ohiko ordutegitik kanpo emandako zerbitzuei dagozkie, ordutegian konpentsatzen ez direnean, lan-baldintzak arautzen dituzten akordioetan jasotako terminoetan; nekagarritasun eta arrisku bereziko baldintzetan egindako lanengatik ordainduko da soilik inguruabar horiek noiz-behinkakoak direnean eta lanpostuak berezkoak ez dituenen.

Ez da horrelakorik jasoko berariazko osagarria zehazteko arduraldi berezia edo nekagarritasun edo arrisku bereziko baldintzak neurtuta dituzten lanpostuetan.

Halaber, ezohiko zerbitzuengatik haborokinek ardura, arduraldi, nekagarritasun edo arriskutasuna ordaindu ahal izango dute zerbitzu-eginkizunetan, lege honetako 72.5 artikuluan jasotako kasuetan, baldintza horiek ordaintzen ez direnean berezko lanpostuan eta eginkizun horiek ez dagozkienean modu espezifikoan beste lanpostu bati esleitutakoei. Kasu honetan, ezohiko zerbitzuengatik haborokinak aldizka ordaindu daitezke eginkizun horietan jardun bitartean eta, nolana ere, lege honetako 72.3 artikulua aurreikusitako denbora-mugarekin. Kontzeptu hori dela-eta Ertzaintzarentzat ezartzen diren ezohiko haborokinen multzoa ezin izango da inola ere kidego osorako ezarritako lansariaren % 1 baino handiagoa, eta organo eskudunari dagokio norbanakoentzako zenbatekoa zehaztea Ertzaintzaren negoziazio-mahaiaren esparruan ezartzen diren irizpideen arabera, lege honetako 103.2 artikuluan aurreikusten den moduan.

5.– Euskal Herriko polizia-kidegoetako funtzionarioek zerbitzua dela-eta dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte.

Zerbitzua ematean kalte-galerak jasan baditu, eta kaudimengabetzat emandako hirugarren pertsona bat horiengatik epaibidez zigortua baldin bada, polizia-funtzionarioak zerbitzua ematen dion Administrazioak ordaindu beharko du kalte-ordainaren kopurua, kontzeptu horrengatik kaltetutako pertsonak dituen eskubideetan subrogatuz.

6.– Ertzaintzaren izaera eta berezitasun funtzionalak direla-eta, Eusko Jaurlaritzak erregelamenduz ezarriko ditu lansari-araubidea eta ordainen araubidea, langileek kidego horretan emandako zerbitzuagatik

IV. ATALBURUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

75. atala.-

Euskal Herriko Polizia Kidegoak osatzen dituzten funtzionarioek honako hauetarako eskubidea izango dute:

a) Kargua izateko eta beren lanpostuan irauteko, lege honetan oharmandako mugen eta baldintzen barruan.

b) Lansariak jasotzeko, iharduten diren lanpostuaren eta dagokien gizarte-aurrezaintzako araubidearen arabera.

c) Administrazio-karrerarako eta barne-aurrerabiderako.

d) Etengabeko lanbide-heziketarako.

e) Beren lan-baldintzak zehazten direnean informatuak egoteko eta parte hartzeko, legeek ezarritakoaren arabera.

f) Osasun-sorospiderako eta aitortzen zaizkien gizarte-laguntzetarako, eta laneko segurtasun eta garbitasunerako.

g) Norbere espedientea libreki ezagutu eta iristeko.

h) Eskubide eta askatasun sindikalez baliatzeko, legeek ezarritakoaren arabera.

i) Iharduneko zerbitzuan emandako urte oso bakoitzagatik, gutxienez hilabeteko oporrak, edo, ihardunean emandako denbora laburrago denean, horren heinean dagozkien egunetakoak hartzeko. Oporrak noiz hartu, zerbitzuen premien menpean geldituko da.

j) Euskal Funtzio Publikoari buruzko legean orokortasunez ezarritako lizentziak izateko, funtzionarioen lanbide-estatutu bereziaren ondorioz araudiz egin daitezkeen egokipenen kaltetan gabe.

k) Beren bizitza-maila eta gizarte-baldintzak hobetzeko, dagozkien Administrazioek sustatutako gizarte-laguntzari buruzko neurri zehatzen bidez.

77. atala.-

1.- Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailak edo kasuari dagokion toki-erakundeko aginpidedun organoak lanaldiaren iraupena eta antolaketa zehaztuko ditu, bai eta atsedean, ordutegi eta jaien araubidea ere.

2.- Ohiz besteko kasuetan, zerbitzu arrazoiek aholkatuz gero, funtzionarioei lanegunetik kanpo dei dakieke zerbitzurako. Era berean, eta arrazoi berak direla eta, poliziaren dependentzietan egoteko

betebeharra ezarri dakieke, edo gertutasun-egoeran egotekoa.

78. atala.-

1.- Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioak indarrean dagoen legedian ezarritako elkartezintasun-araubidea zehazki betetzera behartuta daude, eta, era berean, euskal Administrazio publikoak hala bete dadin eskatzera.

2.- Ezin izango dute, beren jarduerekin batera, sektore publikoan edo pribatuan bigarren lanpostua, kargua edo jarduera bete, ez zuzenean ezta ordezko baten bidez ere.

Dena den, lanpostu, kargu, lanbide edo jarduera publiko edo pribatu bat garatu ahalko dute, indarrean dauden bere arauetan aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan eta betekizunekin, salbu eta bigarren lanpostu hori gauzatzeak kidego polizialaren irudia eta prestigioa hondatzea badakar, edo poliziak jarduteko dituen oinarrizko printzipioen kontrakoa bada. Ezin izango zaie bateragarritasunik baimendu edo aitortu buruzagitza-osagarria jasotzen duten langileei, hor sartuta baitago bateraezintasun faktorea.

Ertzaintzan zerbitzu aktiboan aritzea bateraezina da Indar Armaturen erreserbista izatearekin edo krisi- edo larrialdi-egoeretan kidego polizialek at funtzio publikoak garatzeko beste konpromiso pertsonal batzuekin.

V. KAPITULUA

OSASUNA ETA BABESA

79. artikulua.-

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoak beren mende dituzten administrazio publikoek zainduko dute poliziek beren eginkizunak gauzatzeko behar diren baldintza psikofisikoak izango dituztela. Horretarako, osasun-zerbitzu bat egongo da, eta, ondorio horietarako, lankidetzakontratuak edo hitzarmenak ezarri ahalko dira medikuekin edo erakunde sanitario publiko edo pribatuekin.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileen osasuna zainduko da, laneko arriskuak prebenitzeko planean ezartzen den moduan, eta laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuaren jardueraren eremuaren barruan.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoetako laneko arriskuak prebenitzea txertatu beharko da beraien jarduera guztietan ondorengo hauen bidez: lan-arriskuen ebaluazioa, neurri zuzentzaileak ezartzea, eta lan-arriskuak prebenitzeko plana ezartzea eta aplikatzea. Plan horrek, gutxienez, arrisku-faktore hauek hartuko ditu aintzat:

a) Eraso fisiko, jauste, kolpe, lan-istripu, trafiko-istripu eta abarren aurreko segurtasunarekin lotutako arriskuak.

b) Ingurumen-arriskuak, biologikoak edo laneko higieనేarekin lotutakoak, hala nola kutsadura biologikoaren arriskua, kutsadura kimiko edo erradiologikoa, ingurumen fisikoaren eragina (zaratak, bibrazioak eta abar); mugikortasuna eta ibiltaritza; intoxikazioa hainbat produktu manipulatzegatik edo horiekin kontaktuan izateagatik, eta abar.

c) Arrisku ergonomikoak, objektu, lanpostu, makina, ibilgailu eta ekipamenduekin lotutako arrisku-faktore guztiak barne, eta horiek dakarten lan-zama fisikoa.

d) Arrisku psikosozialak: funtzionarioen osasunean kalte psikiko, sozial edo fisikoak sor ditzaketen diseinu, antolakuntza, lan-zuzendaritza eta ingurune sozialeko alderdi guztiak barne. Horrek barne

hartzten ditu polizia-lanaren berezko eskakizun psikologiko emozional, sentzorial, kuantitatibo eta kognitiboetatik eratorritako faktoreak; trauma osteko estresa; txandakako lana eta gaueko lana; burnout delakoa, gaixotasun profesionalak, eta abar. Jarduera-protokoloak ezarriko dira laneko modalitate desberdineko jazarpen-kasuetarako.

e) Aparteko beste arrisku batzuk: in itinere istripuak; pertsonen arteko gatazken bitartekaritza: larrialdi edo hondamendiko egoeretan jardutea, eta abar.

f) Haurdun den pertsonalarentzat berezko jarduera-protokoloak ezarriko dira; protokolo horietan lanpostuaren arriskuak berehala ebaluatu eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, lan-baldintzak, lan-erritmoak, atsedean hartzeko jarraibideak eta lekuak eragindako pertsonaren osasun-beharretara egokitzeko.

4.– Ertzaintzako funtzionarioentzako berezko prebentzio-zerbitzua egongo da, besteak beste, zeregin hauek izango dituenak:

a) Prebentziorako lan eta programak diseinatu, aplikatu eta koordinatzen laguntzea; baita prebentzio-neurrien efikazia zaintzea ere.

b) Ertzaintzako pertsonalaren lan-arriskuen ebaluazioa egitea.

c) Lehentasunak ezartzea prebentzio-neurri egokiak hartzeko, egindako arrisku-ebaluazioen eta horien efikaziaren arabera.

d) Ertzaintzako pertsonalari informazioa eta prestakuntza ematea laneko segurtasun eta osasunari buruz.

e) Antolakuntzaren eskakizunei dagokienez, prozedurak ezartzea eta eguneratuta izatea, sistemaren aurreikuspenen egokitasuna egiaztatzeko.

f) Prebentziorako helburuen betetze-maila egiaztatzea; arriskuak prebenitzeko erregistroak, auditoria eta ikuskapenen emaitzak eta prestakuntza-erregistroak kodifikatzea eta artxibatzea.

g) Larrialdietako eta lehen sorospenerako planak egitea, eta horiek lan-zentroetan ezartzea.

h) Ertzaintzaren pertsonalaren osasuna zaintzea horien lanaren ondorio diren arriskuei dagokienez, beraien duintasuna eta intimitaterako eskubidea errespetatuz. Medikuek eta osasun-agintariek beste inork ez du izango norberaren informazio medikorako sarbidea.

i) Istripuak ikertzea, kexak eta iradokizunak izapidetzea, eta prebentzio mailako arazo zehatzak aztertu eta horiei irtenbidea ematea.

j) Segurtasun eta Osasuneko Batzordeari babesa, aholkua eta informazioa ematea, Prebentzio-Zerbitzuak segurtasun eta osasunaren arloan egingo dituen jarduerari buruz, horiek ezagutzeko eskumena baldin badu.

k) Osasun-zaintzari dagokion funtziotik eratorritako azterketa mediko eta psikologikoak aldizkakoak eta borondatezkoak izango dira, non eta azterketa mediko eta psikologikoak egitea ez den beharrezkoa egiaztatzeko ea langilearen osasun-egoera arrisku izan daitekeen harentzat edo hark betetzen duen eginkizunarekin zerikusia duten gainerako pertsonentzat.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako pertsonalak zaindu egin beharko du, bere posibilitateen arabera eta kasuan-kasuan har daitezkeen prebentzio-neurriak betez, bai bere segurtasun eta osasun propioa bere funtzioak betetzean, bai bere jarduera profesionalak –bere egite eta ez-egiteen kausaz– eragin diezaiekeen beste pertsona guztiena, bere prestakuntzarekin eta jasotako instrukzioekin bat etorrira. Bereziki, honako hau egin beharko dute:

a) Behar bezala erabili, beren izaeraren eta aurreikusteko moduko arriskuen arabera, makinak, aparatuak, erremintak, substantzia arriskutsuak, ekipamenduak eta, oro har, bere jarduera betetzeko beste edozein baliabide.

b) Behar bezala erabili babes indibidual edo kolektiborako emandako baliabide eta ekipamenduak, jasotako instrukzioen arabera, baita segurtasun-gailuak ere, nola badaudenak hala bere jarduerarekin lotutako baliabideetan zein jarduera hori burutzen den tokietan jar daitezkeenak.

c) Informazioa eman berehala, bide erregularretik, babes- eta prebentzio-jarduerak egiteko izendatutako pertsonalari, arrazoizko zioengatik segurtasunarentzat eta osasunarentzat arrisku izan daitekeen edozein egoerari buruz.

d) Lagundu betetzen agintari eskudunek segurtasuna eta osasuna babesteko ezarritako betebeharrak, eta bere lankidetzaz leiala eman baldintza seguruak bermatzeko zerbitzua ematean.

79 bis artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileen ordezkartzaren eta partaidetzaren araubideak, lan-arriskuen prebentzioari dagokionez, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean jasotako printzipioak eta irizpideak beteko ditu.

2.– Langileen ordezkartza eta partaidetza prebentzio-ordezkarien bidez bideratuko da, zeinak sindikatuek izendatuko baitituzte dagozkion hauteskundeetan lortzen duten ordezkartza-mailaren arabera. Prebentzio-ordezkari izan daitezke sindikatuek izendatutako funtzionarioak, nahiz eta funtzionariook ez izan langileen ordezkari edo sindikatuko ordezkari.

Ertzaintzaren baitan, zortzi prebentzio-ordezkari egongo dira, eta Ertzaintza ordezkartzen duten sindikatuek izendatuko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 103.2 artikuluan xedaturikoaren arabera, hauteskunde sindikaletan lortu duten ordezkartzarekiko proportzioan.

3.– Prebentzio-ordezkariak eginkizun hauek dituzte:

a) Prebentzio-ekintza hobetzen laguntzea.

b) Langileen elkarlana bultzatzea eta sustatzea laneko arriskuak prebenitzeko buruzko araudia betearaziz.

c) Zaintzea eta kontrolatzea betetzen dela laneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia.

4.– Beren eginkizunak betetzean, ahalmena dute:

a) Teknikariei laguntzeko lan-inguruneko prebentzio-ebaluazioak egiten, eta, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 40. artikuluan jasotako baldintzetan, laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileei laguntzeko laneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko lantokietan egiten dituzten bisitetan eta egiaztapenetan, bai eta haiei behar diren oharra egiteko ere.

b) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. artikuluan 4. apartatuan jasotako mugekin, irispidea izateko beren eginkizunak betetzeko beharrezkoa den lan-baldintzei buruzko informaziora eta dokumentaziora, eta, bereziki, aipaturiko legearen 18. eta 23. artikuluetan jasotako informaziora. Informazioak aipaturiko mugak baldin baditu, informazio hori emango da konfidentzialtasuna errespetatzen badu bakarrik.

c) Administrazioarengandik informazioa jasotzeko langileen osasunean eragindako kalteei buruz, langileek kalte horien berri izan ondoren; eta egitateen lekura joateko, baita lanorduez kanpo ere, egitateak zer egoeratan gertatu diren jakiteko.

d) Administrazioarengandik informazioak jasotzeko, hark enpresan babes- eta prebentzio-jardueraz arduratzen diren pertsonengandik edo organoengandik eta langileen segurtasunaren eta osasunaren arloan eskumenak dituzten organismoengandik lortzen dituenak, ahaztu gabe zer ezartzen duen Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 40. artikulua Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekiko lankidetzaren arloan.

e) Lantokietara bisitan joateko, zaindu eta kontrolatu dezaten zer-nolako lan baldintzak dauden, eta, horretarako, lantokiko edozein gunetara sartzeko eta lanaldian zehar langileekin hitz egiteko, zerbitzuan enbarazurik eragin gabe.

f) Administrazioaren hitza izateko hartuko dituela prebentzio-neurriak eta langileen segurtasunaren eta osasunaren babes-mailak hobetzeko neurriak, eta, horretarako, Administrazioari proposamenak egiteko.

g) Oro har, 3/1995 Legearen 36. artikuluan aitorturiko gainerako eskumenak garatzeko, kontuan izanik, hala badagokio, kanpoan geratu behar duten jardueren harira dauden mugak, lege horren beraren 3.2 artikuluan ezartzen denez.

5.– Administrazioek prebentzioari buruz behar diren baliabideak eta prestakuntza eman beharko dizkiete prebentzio-ordezkariei, haien funtzioak gauzatu ditzaten. Prestakuntzan emandako denbora lan-denboratzat joko da ondorio guztietarako.

6.– Kide anitzeko partaidetza-organoak ezarriko dira lan-arriskuak prebenitzeko arloan, zeinetan Administrazioak eta langileek ordezkarikopuru bera izango baitute.

Ertzaintzaren baitan, Ertzaintzaren Segurtasun eta Osasun Batzordea egongo da, laneko arriskuen prebentziorako planak, programak eta ebaluazioak ohiz eta aldian-aldian kontsultatzeko kide anitzeko organo gisa, eta hamasei lagunek osatuko dute, parekotasunez hautatuak: erdiak prebentzio-ordezkariek izango dira Ertzaintzako langileen ordezkarikopuru moduan; eta beste erdiak, segurtasun-arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako saila ordezkatzen dutenak, lehendakaria eta idazkaria barne. Ertzaintzaren Segurtasun eta Osasun Batzordeak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 49. artikulua aitortzen dizkion eskumenak izango ditu, eta bigarren jarduerako epaimahai medikoaren jardunaren berri emango zaio. Batzordeko kideek beren eginkizuna betetzen igarotzen duten denbora ohiko lanaldiaren barruan igarotakoa dela joko da, ondorio guztietarako, jarduera hori egiteko hitzartu den sistemaren arabera; nolahi ere, denbora hori lanaldiaren barruan igarotakotzat jotzeko, unitateburuari jakinarazi behar zaio alde zuzenetik.

79 ter artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileak bere baitan hartzen dituen erakundeko funtzionarioei dagokien babes sozialeko erregimena bete behar dute; langileok gizarte-segurantzari buruzko arauak horri dagokionez dituzten berezitasunekin.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kidegoak bere baitan hartzen dituzten administrazio publikoek babes sozial osagarriko mekanismoak arbitratuko dituzte aldi baterako ezintasunak daudenean, ezintasun-egoera hori zerbitzua ematerakoan izandako lesioek edo patologiek sortzen badute, eta, betiere, langilearen aldetik ez bada dolorik edo arduragabekeria edo trebetasun-falta larriarik egon. Era berean, istripu-aseguruak hitzartuko dituzte, heriotza, ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo balaiezintasun handia edo lesio iraunkorrak sortzen direnerako, bere funtzioak betetzean sortutako lesioen ondorioz gertatu badira.

3.– Zerbitzua ematerakoan hilez gero, edo heriotza funtzionarioaren kontra polizia izateagatik egindako ekintza bidegabeetatik ondorioztatzen bada, ezkontideak edo bikotekide superstitiak –edo, halakorik egon ezean, haren legezko ondorengoek– izango dute eskubidea hildako pertsonak hil zenean betetzen zuten lanpostuan jasotzen zituen ordainsari osoen bi urteko ordainsariak jasotzeko,

dena batera, edozein zela ere lanpostua betetzeko forma.

4.– Funtzionarioak nahitaezko erretiroa hartu behar izanez gero, hirugarren pertsonak haren aurka (zerbitzua ematen ari zela edo polizia izatearen ondorioz) egindako ekintza bidegabeen ondorioz, aldizkako prestazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea izango du; prestazio hori gehi egokitzen zaion pentsioa, ohikoa edo apartekoa, eskubide hori sortzen duen gertakaria gertatu zen unean betetzen zuen lanpostuaren ordainsari finkoen eta aldizkakoehuneko laurogeira helduko da.

Prestazio hori ezin da laneko errentekin batera jaso, ezta legez bateragarriak diren beste pentsioekin edo subsidioekin batera ere. Jasotzen dituen prestazio ekonomikoaren, pentsioen eta hartzeko pasiboen batura ezin izango da aurreikuspen sozialeko erregimen publikoan aurreikusitako gehieneko pentsioa baino handiagoa.

Prestazio ekonomikoak aipatutako ordainsari finko eta aldizkakoak aplikatuzetik ondorioztatzen den urteko gehikuntza izango du, eta hileroko ordainduko da, adinagatik haren nahitaezko erretiroa aldarrikatu behar izan den egunera arte, salbu eta hori gertatu baino lehen hil egingo balitz.

V BIS KAPITULUA

KONDEKORAZIOAK ETA AITORTZAK

80. artikulua.–

1.– Erregelamendu bidez ezarriko da merezimendu polizialari dominak, zorionak eta gainerako kondekorazioak emateko erregimena, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako funtzionarioei saritzeko, baldin eta beren eginkizunak betetzean gizartearen mesederako zenbait tasun nabarmen egiaztatzen badute, hain zuzen: eredugarritasuna, sakrifizioa, eraginkortasuna eta zerbitzuari emanak izatea.

2.– Erregelamendu bidez arautuko dira merezimendu polizialari ematen zaizkion domina motak, bai eta aurrekontuak eta prozedura ere. Ofizioz hasten da prozedura, organo eskudunak egokitzen jotzen duenean, dauden informazioak kontuan hartuta.

3.– Erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan, merezimendu polizialaren domina ematearekin batera ondorio ekonomikoak egon ahalko dira, baldin eta ez badagokio aurreko artikuluan aipatutako prestazio ekonomikoak aitortzea.

4.– Diskrekzionalki igo ahalko dira hurrengo kategoriara, ohore gisa, beren izaera poliziala betetzean izandako jarduera heroiko baten ondorioz hiltzen diren edo ezintasunagatik erretiratu behar diren funtzionarioak, hori egitea justifikatzen duen egoera berezia dagoenean. Aitormen horrek ez du ondorio ekonomikorik.

VI. ATALBURUA

ADMINISTRAZIO-EGOERAK

81. artikulua.–

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoetako langileak euskal enplegu publikoaren legedi orokorrean aurreikusitako egoera administratiboren batean egongo dira, kapitulu honetan jasotzen diren berezitasunekin, edo bigarren jarduerako egoera administratibo espezifikotan.

82. atala.-

1.– Ordezkaritza-organo publikoetarako hauteskunde batzuetan hautagai izan nahi duten funtzionarioak norbere borondatezko lan-utzialdiko funtzionaritzat joko dira, iharduneko zerbitzuan edo

bigarren ihardueran ari direnak hautaezinak bait dira. Kargurako hautatuak izanez gero, legeen arabera dagokien administrazio-egoerara igaroko dira. Hautatuak ez baldin badira, iharduneko zerbitzura edo bigarren iharduerara itzultzeko eskatu beharko dute hogeitamar eguneko epean gehienera, eta, horrela egin ezean, norbere interesagatiko borondatezko lan-utzialdira igaroko dira, baldin eta horretarako eskatzen diren beharkizunak betetzen badituzte.

2.- Aurreko idazatian oharmandako borondatezko lan-utzialdiko egoeran dauden funtzionarioek ez dute inolako lansaririk jasoko horretan dauden bitartean. Hala ere, lanpostua gordetzeko eskubidea izango dute, eta egoera horretan emandako denbora kontagai izango da hirurtekoetarako, norbere gradua finkatzeko eta gozamen-sarien eskubideetarako.

83. atala.-

Zeregin-geldialdia behin-behinekoa edo sendetsia izan daiteke, eta dirauen bitartean funtzionaria bere zereginenez eta bere egoerari dagozkion eskubideez gabetuko da, 84. atalaren 3. idazatian erabakitakoaren kaltetan gabe.

84. atala.-

1.- Salbuespen gisa, diziplinazko edo auzibidezko prozedura bat izapidatzen den bitartean behin-behineko geldialdia erabaki daiteke bermezko neurri gisa, aginpidedun organoaren arrazoitutako ebazpen bidez, interes publikoaren babesak hala eskatzen duenean, eta geldialdia adieraztea aginduzkoa izango da funtzionaria espetxeratzeko ebazpenik izan bada.

2.- Behin-behineko geldialdiko denbora ezingo da sei hilabetekoa baino luzeagoa izan, ondoko kasutan ezik: diziplinazko espedienteak doakionari egotz dakiokkeen etenaldia izan bada edo, espedientea amaitzeko, egintza berengatik marrukeriazko lege-haustea dela eta izapidatzen den zigor-legezko prozeduraren azken ebazpena bakarrik falta bada, diziplinazko espedientea bukatu arte luza daitekeelarik, azken kasu honetan, geldialdiko denbora. Geldialdia funtzionaria espetxeratzeko ebazpenaren ondorioz gertatu denean, epaia jaso arte edo askatzeko agintzen den arte luzatuko da.

3.- Behin-behineko geldialdia duenak oinarrizko lansariak eta familiarengatiko laguntzak jasotzeko eskubidea izango du, diziplinazko espedientea dela eta doakiona ez agertzea edo berari egotz dakiokkeen espediente-atzeratzea gertatu ezik, bi kasuok edozein lansari jasotzeko eskubidea galeraziko bait dute.

4.- Espedientea ebatzi ondoren, geldialdia ez bada sendetsizat jotzen, ez eta zerbitzutik baztertua erabakitzen, funtzionaria bere lanpostura berehala itzuliko da, jaso ez dituen lansariak emango zaizkio eta behin-behineko geldialdiko egoeran eman duen denbora iharduneko zerbitzutzat hartuko zaio.

5.- Baldin eta behin-behineko eginkizun-etenaldia behin betiko bihurtzen bada, funtzionarioak itzuli egin beharko du behin-behineko eginkizun-etenaldian jasotakoa. Behin-behineko eginkizun-etenaldia ez bada zehapen irmo bilakatzen, Administrazioak bueltatu beharko dio funtzionarioari benetan jaso dituen hartzekoen eta eskubide guztiak izan balitu jasoko zituzkeen hartzekoen arteko aldea.

6.- Behin-behineko eginkizun-etenaldian emandako denbora kontuan hartuko da behin betiko eginkizun-etenaldiaren epea betetzeari begira.

85. artikulua.-

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoetako funtzionarioek –Ertzaintzako fakultatiboen eta teknikarien eskalakoak direnak izan ezik–, zerbitzu aktiboko egoeran daudenean, adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboaren modalitatera igarotzea eskatu ahalko dute, zerbitzua emateko baldintzetan egin beharreko aldaketak eginda, zerbitzu aktiboa emateko helburuz.

2.– Administrazio bakoitzak ezarriko ditu, behin langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa aitortua izateko bete beharreko betekizunak eta baldintzak. Arazte horretan, datu hauek guztiak sartuko dira:

a) Zer adinetatik aurrera aitortu daitekeen adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa.

b) Zer aldaketa mota egin behar den zerbitzua emateko baldintzetan.

c) Urtean zerbitzu mota horren aitortuen gehieneko kopuru bat ezartzeko aukera dagoen, salbuespen gisa eta arrazioak azalduta, zerbitzu polizialaren prestazioa ematen jarraitzea bermatzea ezinezkoa denean.

d) Unitate singularrak dauden, non adina dela-eta zerbitzuarekiko egokitzapenak bateraezinak diren, zerbitzuaren izaera dela eta, lanpostuaren eginkizunak betetzearekin. Kasu horretan, erregelamenduak jaso beharko du hutsik dagoen eta beste lanpostu bati berriz atxiki beharra, hartan aritzeko bete beharreko baldintzak betetzen baditu, lehen betetzen zuen postua hornitzeko betebeharreko baldintza berdinetan eta interesdunak aukeratzeko eta lehentasuna ezartzeko ezartzen diren baldintzekin.

3.– Adina dela-eta egokitutako zerbitzua aitortua izateko, agenteak borondatezko erretiro aurreratua eskatzeko konpromisoa hartu beharko du, horretarako behar den adina duenean betiere, kasuan kasuko aplikatu beharreko Gizarte Segurantzaren araubideak xedatutakoaren arabera. Konpromiso hori atzeratu ahalko da, baldin eta erretiro aurreratua hartzeko adina betetzen duenean, ez baditu betetzen oinarri arautzailean xedatutako pentsioa ehuneko ehunetan jasotzeko baldintzak.

86. artikulua.–

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoetako funtzionarioak –Ertzaintzako fakultatiboen eta teknikarien eskalakoak direnak izan ezik–, zerbitzu aktiboan daudenean, bigarren jarduerako egoera administratibora igaro ahalko dira, baldin eta zereginak egiteko beharrezko ahalmen fisiko eta psikikoen gutxitze agerikoa badute; ageriko gutxitze horrek, polizia-lanbidearen oinarritzko egitekoak eraginkortasunez egitea galarazi gabe, bere kategoriako berezko zereginak osorik gauzatzeko ahalmenaren urritze iraunkorra ekarri beharko du berekin.

Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, lanbide polizialaren funtsezko eginkizuntzat jotzen dira, zehazki, ordena eta herritarren segurtasuna eusteko eta lehengoratzekoari buruzkoak, delituzko gertakariak prebenitzekoak eta haiek ikertzekoak, eta errudunen jazarpena egitekoak. Lan horiek eraginkortasunez egiteko, oinarritzko gaitasuna behar da, bai su-armak eta gainerako erregelamendu-defentsak erabili eta maneiatzeko, baita egoera normaletan ibilgailuak gidatzeko ere; oinarritzko mugimendu-gaitasuna ere eduki behar da.

2.– Administrazio-egoera horretara igartzeko prozedura ofizioz edo interesdunaren eskariaz hasiko da, aurrez Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari baliaezintasun iraunkorra aitortzeko deklarazioa eskatu beharrik gabe.

3.– Hiru sendagilek osatutako epaimahai ebaluatzaile batek balioetsiko ditu urritasun funtzionalak; sendagileok Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloa eskumena duen sailak edo dagokion toki-erakundeko organo eskudunak izendatuko ditu, eta ordezkari sindikalek proposatuko dute haietariko bat. Epaimahaiak, bere egitekoa zuzen egiteko asmoz, beharrezkotzat jotzen dituen sendagile espezialisten partaidetza eskatu ahalko du, eta helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen medikuntza-alorreko proba, ikuskapen edo azterketa guztiak egitea erabaki ere.

4.– Epaimahai ebaluatzaileak ematen dituen irizpenek organo eskudunarentzat behartze-indarra izango dute bigarren jarduerako egoera adierazterakoan; hala eta guztiz ere, prozesua balio gabetu dezakeen irregulartasunen bat sumatuz gero, organo horrek berrazterketa egiteko aukera izango du,

administrazio-prozedura arautzen duten arauekin bat etorriz. Baldin eta, egindako ikuskapenen ondorioz, epaimahaiak susmatzen badu funtzionarioengan ezintasun fisikorik edo bere zereginetan jarduteko ezintasun iraunkorra dakarkion ahalmen-gutxitzerik, irizpenean jasoko du egoera horren berri, egoki diren ondorioetarako.

5.– Bigarren jarduerako egoera administratibora igarotzen diren funtzionarioek utzi egingo dute atxikita duten lanpostua, ez bada bigarren jarduerako egoeran dagoen langileek egiteko modukoa, eta aldi baterako atxikipenez esleituko dira haiek egiteko moduko zerbitzuak ematen dauden unitateko lanpostuetara. Baldin eta unitatean ez badago lanpostu hutsik, interesdunak proposatutako hiru lanposturen artetik Administrazioak ezartzen duen lantokira atxikiko da funtzionarioa, betiere lantoki horretan kidego polizialaren postu-zerrendan definitutako posturen bat hutsik egonez gero.

Aurreko paragrafoen aurreikusitakoaren arabera lanpostu hutsik ez badago, edo zerbitzuak ematen ari den lantokiaren inguru mugakidean ez badago lanpostu hutsik, eta interesdunak ez badu bere borondatez horrelakoren bat proposatzen, aldi batez eta aukera hori ez dagoen bitartean, Administrazio eskudunak egokituko du funtzionalki betetzen ari zen lanpostua interesdunaren gaitasunetara, epaimahai ebaluatzaileak ematen duen irizpidearen arabera.

6.– Bigarren jarduerako egoera administratibora igarotzeko borondatez eskatzeak berarekin batera dakar aurreratutako borondatezko erretiroa eskatzeko konpromisoa, kasuan-kasuan aplikatu daitekeen Gizarte Segurantzaren araubidearen arabera, erretiro mota hori hartzeko eduki beharreko adina betetzean. Konpromiso hori atzeratu ahalko da, baldin eta erretiro aurreratua hartzeko adina betetzen duenean, oinarri arautzailean xedatutako pentsioa ehuneko ehunetan jasotzeko baldintzak betetzen ez baditu.

7.– Bigarren jarduerako egoera administratiboan dauden funtzionarioek beren kategoriako oinarritzko lansariak jasoko dituzte, eta baita norbere ezaugarriengatik aitortuta dituztenak ere, horien artean, hirurtekoei dagozkienak, zeinek egoera horretan ere hobetzen segituko duten. Betetzen den lanpostuari edo plazari dagozkion ordainsari osagarriak jasoko dira.

Gizarte Segurantzako organo eskudunek ezintasun iraunkorreko egoeran daudela aitortu dieten funtzionarioen kasuan, nahitaezko erretiroa hartzera behartu gabe, dagozkien ordainsari osagarriak kontzeptu harengatik aitortuta duten aldizkako prestazioaren zenbatekoan murriztuko dira.

8.– Bigarren jarduerako egoera administratiboan dauden funtzionarioek eskubidea dute adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiborako aurreikusitako eginkizunen modulazio berberak hartzeko, baldintza berberetan.

87. artikulua.–

Adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboan edo bigarren jardueran aritzen diren funtzionarioek, baldin eta salbuespen gisa aldi baterako destinorik gabe eta dagokien polizia-kidegoaren esku badaude, egoera horrek irauten duen bitartean, kategoriari dagozkion oinarritzko lansariak eta aitortuta dituen ordainsari pertsonalak jasoko dituzte, bai eta betetako azken lanpostuaren lansariak ere, berriazko osagarri berezia izan ezik.

89. atala.-

1.- Lanpostua eta lan-izendapena gorderik ez dutenak iharduneko zerbitzuko edo bigarren iharduerako egoerara itzultzeko, lanpostuak betetzeko deialdietan parte hartu beharko dute, eta lehiaketa edo izendapen librearen bitartez itzul daitezke. Era berean, itzultzea lanpostu bati behin-behineko atxikita egin daiteke, lanpostu hutsa dagoela eta.

2.- Bigarren iharduerako egoera ezintasun fisiko edo psikikoarengatik adierazi bazen, egoera honetatik iharduneko zerbitzuko egoerara itzultzeko, funtzionaria zeharo sendatu dela sinesgarriro

ziurtatu behar da, 87. atalaren bigarren idazatian aipatzen den Mediku-Epaimahaiak aldeko erizpena eman ondoren.

VII. ATALBURUA

DIZIPLINAZKO ARAUBIDEA

90. atala.-

1.- Atalburu honetan ezartzen den diziplinazko araubidea Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioei aplikatuko zaie, haien administrazio-egoera dena dela.

2.- Ebazpena erabakitzen den momentuan funtzionaria zigorra betetzea galerazten dion administrazio-egoeran baldin badago, egoera-aldaketak zilegitzen duenean beteko da zigorra.

3.- Ezingo da diziplinazko erantzukizunik eskatu funtzionari izan aurretik edo izateari utzi ondoren egindako ekintzengatik, hurrengo lerroaldian ezarritakoaren kaltetan gabe.

4.- Praktika-aldiko funtzionarioak dagokien polizia heziketako etxearen arautegian ezarritako diziplinazko araubidearen menpe egongo dira, bai eta, osagarritasunez, atalburu honetan eta honen garapenerako ematen diren xedapenen menpe ere.

91. atala.-

1.- Euskal Herriko Polizia Kidegoen funtzionarioak beren egiteko eta betebeharrak ez betetzeagatik, ez betetze hori diziplinazko hutsegitea denetan bakarrik izango dira zigortuak.

2.- Diziplinazko erantzukizuna funtzionarioak izan dezakeen herri-legezko edo zigor-legezko erantzukizunaren kaltetan gabe ulertuko da.

3.- Diziplinazko erantzukizuna izango dute, hutsegite baten egileek ez ezik, onartzen duten nagusiek eta egin erazten duten funtzionarioek, bai eta hutsegitea ezkututzen dutenek ere.

4.- Diziplinazko espedientea izapidatzea eragin duten egintzak lege-hauste izan daitezkeela uste denean, Zuzentza-Administrazioari aditzera emango zaio berehala.

5.- Euskal Herriko Poliziako kideen kontra zigor-legezko prozedura hasteak ez du galeraziko egintza berengatik aldez aurreko informazioa edo dagokion diziplinazko espedientea izapidatzerik, eta, hala badagokio, espedientepeko aldian baterako geldialdia ezarriko zaie eta egoki diren bestelako bermezko neurriak ere hartuko dira. Hala ere, aipatutako prozedura horiek zigor-legez emandako epaia sendetsia denean bakarrik erabaki ahal izango dira, aipatzen dituen ekintza frogatuen adierazpenak Administrazioa lotzen duela.

92. atala.-

1.- Diziplinazko hutsegiteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

2.- Honako hauek dira hutsegite oso astunak:

a) Maltzurkeriazko lege-hauste izan daitekeen edozein jokabide, baldin askatasunaz gabetzeko zigorra berekin badarama.

b) Polizia izateaz abantaila erabiliz, herritarrei, mendekoei edo Administrazioari kalte larria eragitea, bai eta beren eginkizun polizialak gauzatzekoan haiekin erlazionatzen diren pertsonen, bereziki beren zaintzapean daudenei, edozein tratu jasanezin, apalesgarri, diskriminatzaile edo iraingarri ematea ere. Tratu diskriminatzailezat joko da Konstituzioaren 14. artikuluan adierazitako

arrazoiren batean oinarritzen dena.

c) Zerbitzuan ari direla edo ohituraz mozkortzea nahiz droga toxikoak, sorgorgarriak edo gai psikotropikoak hartzea, hala nola, normaltasun fisiko edo psikikorik eza nabaria denean, dagozkion egiaztapen teknikoak egiteari uko egitea.

d) Sekretu profesionala urratzea eta behar bezalako isiltasuna ez gordetzea bere kargua dela-eta ezagutzen dituen gaiei buruz, baldin eta gai horiek kalte larria eragiten badute lan polizialaren garapenean edo edozein pertsonarengan.

e) Grebetan, horien ordezeko ekintzetan, edo zerbitzuen ohizko funtzionamendua haustekotan pentsatutako iharduketetan parte hartzea.

f) Agintarien edo nagusien kontra banaka zein taldeka oldartzea, bai eta haiek legez emandako agindu edo manuak ez betetzea ere.

g) Nabarmenki, behin eta berriz eta justifikatu gabe errendimendu gutxi izatea, bai eta nabarmenki ez betetzea lanpostuari datxezkion oinarritzko eginkizunak edo esleitutako eginkizunak.

h) Beharrezko egiten duen inolako ziorik gabe eta edozein pertsonari kalte larria emanaz zein Kidegoaren izen ona larriki itzaliz, arauzko arma edo karguaren bereizgarriak harrokeriaz erakustea, bai eta arauzko arma zerbitzutik kanpo erabiltzea ere, 34. atalean oharmandako kasuetan salbu.

i) Zuritu ezineko zabarkeriaz armak galtzea edo bestek lapurtzea.

j) Funtzionarioak ihardutea derrigorrezkoa duen egintza edo egoera larrietan berehala ez laguntzea.

k) Segurtasun indar eta kidegoetako gainerako kideekin lankidetzan ez aritzea, nabarmen, baldin eta jokabide horrek kalte larria eragiten badio zerbitzuari edo ondorio larriak ekartzen baditu herritarren segurtasunarentzat.

l) Falta astuna egitea lehendik zehatuta izan denean, bide administratiboan irmoak izatera heldu diren ebazpenen arabera, egindako falta bezain astunak edo astunagoak diren beste bi faltarengatik, baldin eta haren oharrak ez baditu baliogabetuta izateko betekizunak betetzen.

l bis) Sexu-jazarpena, jazarpen sexista eta laneko jazarpena. Azken hori honela ulertuko da: zerbitzu-harremanetan, behin eta berriz, jazarpen psikologikoa egitea eta etsaitasuna adieraztea.

l ter) Segurtasun indarrek eta kidegoek leku publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruz legeetan falta oso astuntzat jotako arau-hausteak.

m) Aurreko puntuetan aipatu gabe egon eta euskal Administrazio publikoetako funtzionarioen araudi orokorrean hutsegite oso astuntzat jotzen diren beste jokabideak.

3.- Hutsegite astun eta arinak araudiz zehaztuko dira 94. ataleko irizpideen arabera.

93. artikulua.–

Kapitulu honetan aipatzen diren faltengatik, honako zehapen hauek jarri ahal izango dira:

1.– Falta oso astunak direla-eta:

a) Zerbitzutik baztertzea.

b) Eginkizunak kentzea, gutxienez urte bat eta egun batez, eta bi urtez, gehienez.

2.– Falta astunak direla-eta:

- a) Eginkizunak kentzea, lau egunez, gutxienez, eta urtebetez, gehienez.
- b) Destino-aldaketa, destinoa galduta edo galdu gabe.

3.– Falta arinak direla-eta:

a) Ohartarazpena.

b) Eginkizunak kentzea, egun batez, gutxienez, eta hiru egunez, gehienez, baina antzintasuna zenbatzeko orduan eraginik izan gabe.

Funtzionarioei ezarritako zehapena nahitaezko lekualdatzea denean, funtzionario horiek ezin izango dute destino berria lortu inolako prozeduraren bidez lekuz aldatuta izan ziren zentroan edo unitatean, urtebete eta hiru urte bitarteko aldian, zehapena ezartzen dien ebazpenean ezarritakoari jarraikiz, hurrengo artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

94. artikulua.–

Faltak larritasun handiagoa edo txikiagoa duen ezartzeko, eta ezarri beharreko zehapena graduatzeko, elementu hauek kontuan hartuko dira, objektiboki egin denaz edo egin ez denaz gain, eta proportzionaltasun-printzipioaren pean jokatuta:

- a) Nahita egin den.
- b) Noraino parte hartu duen egitez edo ez egitez.
- c) Zer nahaste zor dezakeen Administrazioaren eta polizia-zerbitzuen ohiko funtzionamenduan.
- d) Herritarrentzat eta mendekoentzat ekar ditzakeen kalteak edo begirune-falta.
- e) Noraino urratu diren diziplina-, hierarkia- eta lankidetz-printzipioak.

f) Historial profesionala, zeina, ondorio horietarako, inguruabar leungarri gisa baino ezin izango baita baloratu.

g) Berrerori den. Berrerortzea dago, baldin eta funtzionarioak falta egiten duenean dagoeneko zehapen bat jaso badu ebazpen irmo baten bidez beste falta astunago batengatik edo larritasun bereko edo gutxiagoko bi faltengatik, eta falta horiek ez badira baliogabetu. Berrerortzea dagoela ulertzeko, ez dira zenbatuko baliogabetu diren edo baliogabetu beharko liritekeen diziplina-aurrekariak.

h) Administrazioaren edo zerbitzu polizialen irudia hondatu den.

i) Oro har, herritarren segurtasunerako zer garrantzia duen.

Delituzko falten kasuan, espezifikoki baloratuko da epai irmoaren arabera ezarritako zigorraren zenbatekoa edo garrantzia, bai eta delituzko jokabideak eginkizun polizialekin duen erlazioa ere.

95. atala.-

1.- Ezin da hutsegite astun edo oso astunengatik zigorrik jarri, horretarako izapidatutako espedientearen indarrez ez bada. Hutsegite arinengatik zigorrak jartzeko ez da aginduzkoa aurretik espedientea izapidatzea, entzunaldia salbu.

2.- Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarien zigortze-prozedura araudiz ezarriko da

hurrengo printzipioak oinarri dituela: ofiziozko ekimena, alderdikierarik eza, arintasuna, eraginkortasuna, iragarkuntza eta kontraesantasuna; eta hurrengo eskubideak bereziki barruan dituela: informazioa, defentsa, entzunaldia eta espedientearen agerikotasuna.

2 bis.– Espedientatutako pertsonak badu ez deklaratzeko eskubidea, bere kontra ez egiteko eskubidea, bere burua erruduntzat ez jotzeko eskubidea eta errugabetzat joa izatekoa. Instruktoarek bermatuko du une oro espedientatutako pertsonak duen defentsarako eskubidea, eta horretarako behar diren neurriak hartuko ditu.

Espedientatutako pertsonak aukeratu ahalko du bere konfiantzazko jarduneko abokatu bat edo sindikatu-ordezkarri bat edo kide polizialeko funtzionario bat, haren aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozedurak dakartzan jarduera guztietan.

Bigarren aukera hori hartuz gero, agintariak erraztuko diote izendatutako funtzionarioari egotea espedientatutako pertsonak diziplina-agintarien edo espedienteen instrukzio-egileen aurrean egin beharreko agerraldi pertsonaletan, eta haren aholkularitza borondatezkoa izango da beti; izendapenak ez dio inolako eskubiderik emango laguntzatik ondorioztatu daitezkeen gastuetatik ordaindua izateko.

2 ter.– Espedientatuek une oro jakin ahalko dute zer egoeratan dagoen prozeduraren izapidetzea, administrazio-prozedura erkidea arautzen duten legeetan aurreikusitakoaren arabera.

3.- Diziplinazko espedienteari hasiera ematearekin batera, edo hasiera eman ondoren edozein momentutan, aginpidedun agintaritzak, lege honetako 84. atalean ezarritakoaren arabera, funtzionarioen behin-behineko geldialdia erabaki dezake, eta beharrezkoak diren bestelako bermezko neurriak har ditzake, jasotzen den ebazpenaren eraginkortasuna edo zerbitzua eraginkortasunez betetzea ziurtatzeko.

4.- Udaltzaingo Kidegoetako funtzionarioen aurka diziplinazko espedientei hasiera ematearen eta horien erabakiaren berri lanarigo ordezkari organoari emango zaie.

5.– Prozedura hasi eta handik sei hilabetera ez bada ebazpena oraindik jakinarazi, iraungita geratuko da, administrazio-prozedurari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitako ondorioekin. Sei hilabeteko epe hori eten egingo da, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorretako Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitako kasuetan, baita prozedura geraturik dagoen tartean ere, interesdunari edo prozeduraren xedea diren gertakizunak direla eta jarduera judizial penalarri egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

96. atala.-

1.- Ertzaintzako kideei diziplinazko zigorrak jartzeko aginpidedun organoak hauek dira:

a) Herrizaingo Sailburua, zerbitzutik baztertzeko zigorrerako.

b) Segurtasun Sailburuordea, hutsegite astun eta oso astunen zigorrerako.

c) Hutsegite arinengatik zigorrak jartzeko, arestian aipatutako organoen gain, hutsegileek zerbitzua burutzen duten egoitza edo unitateen Buruzagiak ere aginpidedunak izango dira.

2.- Udaltzaingoetako kideei diziplinazko zigorrak jartzeko aginpidedun organoak toki-araubideari buruzko legedian ezarritakoak dira.

3.- Lege honetako 111. atalean, Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioei atxikitako funtzionarioak direla eta, Diputatu Nagusiei ematen zaien aginpidearen kaltetan gabe ulertu behar da aurreko idazatian esandakoa.

97. atala.-

1.- Zigorra betetzeak, heriotzak, hutsegitea edo zigorra iraungitzeak, zigor-barkamenak edo amnistiak deuseztatzen dute diziplinazko erantzukizuna.

2.– Falta oso astunak bi urtera preskribatuko dira; astunak, urtebetera; eta arinak, hilabetera. Falta egiten den unetik hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

3.– Falta oso astunengatik ezarritako zehapenak bi urtera preskribatuko dira; falta astunengatik ezarritakoak, urtebetera; eta falta arinengatik ezarritakoak, hilabetera. Preskripzio-epea zehazteko ebazpena irmo bihurtu den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

4.- Diziplinazko zigorren adierazpenak langile-eroldan idatziko dira. Adierazpen horiek denboraldi bat igaro ondoren, ofizioz baliogabetuko dira, baldin eta denboraldi horretan zigortuak ez badu bide eman zigorra jarritz amaitu den beste diziplinazko prozedurarako. Denboraldi horrek, hutsegite astun edo oso astunengatik jarritako zigorrak direnetan, iraungipen-epearen iraupena izango du, eta, hutsegite arinengatik jarritakoetan hiru hilabetekoa izango da, dagokion zigorra betetzen den unetik kontatzen hasita.

97 bis artikulua.–

1.– Diziplina-zehapenak exekutiboak izango dira, baldin eta haien kontra ezin bada inolako errekurtsio arruntik ezarri bide administratiboan, eta haietan beren efikazia bermatzeko behar diren kautela-xedapenak hartu ahalko dira, baldin eta ez bada exekutiboa, eta kasuan kasuko hartu diren aldi baterako neurriei eustea izan ahalko da.

Ebazpena exekutiboa denean, eten ahalko da, kautelaz, baldin eta interesdunak adierazten badio Administrazioari ebazpen irmoaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko asmoa duela, bide administratiboan.

Kautelazko etenaldi hori amaituko da legez aurreikusitako epea amaitzen denean, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri gabe, edo, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarrita ez bada izapide berean eskatu aurkatutako ebazpenaren kautelazko etena edo organo judizialak ematen badu bere iritzia eskatutako kautelazko etenaldiari buruz bertan aurreikusitako moduan.

97 ter artikulua.–

1.– Diziplina-zehapenak ezartzen diren ebazpenean ezarritakoaren arabera eta beren izaeraren arabera beteko dira, zehatutako pertsonari al bait kalte gutxien egiteko moduan, eta zehapena exekutibotasuna hartzen duen egun berean hasiko dira betetzen, salbu eta, justifikatutako arrazoiak direla medio, ebazpenean bertan atzeratzen bada hura betetzea artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera.

2.– Ezin bada ebazpena ematen den unean zehapena ebatzi, funtzionarioaren administrazio-egoerak hori egitea eragozten duelako edo nahitaezko erretiroa hartu behar izan duelako, zehapena gauzatuko da soilik haren egoera-aldaketak horrela egitea uzten badu, salbu eta preskribatzeko epea igaro bada.

3.– Eginkizunak aldi baterako eteteko zehapen bat baino gehiago egonez gero, zehapenen ezarpenaren ordena kronologikoari jarraituta beteko dira, eta, ordena horren barruan, larrienetatik hasita eta sei urteko muga bete arte. Zehapenen baturak muga hori gainditzen badu, gainerako denboran zehapena ez da beteko.

4.– Eginkizunak aldi baterako eteteko zehapenaren ondorio ekonomikoak berehala gauzatuko dira zehapena jaso duen pertsonaren kargura.

5.– Falta arina edo astunarengatik gehienez 15 egun arteko etenaldiaz zehatutako funtzionarioak zehapen hori betetzeko alternatiba bat aukeratu ahalko du, aldezturik Administrazioak horrela

egitea onartuz gero: ezarritako lanalditik kanpo lan egitea inolako ordainsaririk edo konpentsaziorik jaso gabe ezarritako zehapenaldia bitartean, eta edonola ere, lanaldien arteko atsedenen bermeak errespetatuz.

6.– Segurtasun-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuak eta udalaren organo eskudunak, ofizioz zein interesdunak eskaturik, eta bidezko arrazoiak direla-eta, erabaki ahalko dute zehapena preskribatu aurreko tarte batez etetea, edo partzialki edo osorik bete beharrik ez izatea. Zehapena etenda egondako denbora kontuan hartuko da zehapena baliogabetzeari begira.

VIII. ATALBURUA

ORDEZKARITZA ETA PARTE-HARTZEA LAN-BALDINTZAK ZEHAZTERAKOAN

98. atala.-

1.- Lanbidezko, ekonomiazko eta gizarte-interesak ordezkatzeko, defendatzeko eta bultzatzeko, Ertzaintzako funtzionarioek eurek aukeratutako sindikatuetan, sindikaritza-federazio edo bazkunetan bazkideku ahal izango dira.

2.- Askatasun sindikalaz baliatzean, Autonomi Elkarteko Polizia Kidegoko funtzionarioek lege honetan ezarri den deontologiako arau-bildumari erabateko errespetoa diotela jokatu beharko dute, eta eskubide eta askatasun publikoen bermearekiko begirune bereziz.

99. atala.-

1.- Sindikatuen ordezkari-kopuruarekiko eskubidea ondoren jartzen diren mailen arabera izango da, barruti bakoitzean, horien aukeraketa atal honetan eta honen garapenerako ematen diren arauen arabera izango delarik:

a) Mila funtzionari arte, hautatzaile egoeran daudenen artetik: 14.

b) 1.001etik gora: 3 ordezkari mila funtzionario edo zatikako hautatzaile egoeran daudenetik.

2.- Ertzaintzako ordezkariak duten sindikatuak proposatuta, Herrizaingo Sailburuak ordezkariak hautatzeko deia egingo du, haien agintaldia bukatu aurretik hiru hilabeteren barruan egin beharko dena.

3.– Hautesle eta hautagai honako hauek izango dira, hauteskunde-bideari hasiera ematen zaion eguna abiapuntutzat harturik: zerbitzu aktiboko edo bigarren jarduerako egoeran dauden karrerako funtzionarioak eta prestakuntza-ikastaroa gainditu ondoren praktiketan ari diren funtzionarioak.

4.- Legez-eraturako sindikatuak bultzatu ahal izango dituzte hautagai-zerrendak. Hautagai-zerrenda bakoitzak hautatu beharreko ordezkari beste hautagai jarriko ditu.

5.- Hauteskunde-barruti bat izango da Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Kondaira Lurralde bakoitzean.

6.- Heineango ordezkari-sistemaren bidez, ehuneko 5 baino boto gehiago edo %5 lortu dituzten zerrenden baliozko botoak zati bete beharreko tokiaren arabera emango zaizkie zerrenda bakoitzari dagozkion tokiak. Bete gabeko postuak, hala gertatuz gero, bakoitzak lortutako botoen gainontzekoaren arabera zerrendei emango zaizkie, goitik beherako hurrenkeran.

7.- Ordezkarien agintaldia hautatutako aldarrikapena egiten denetik hasiko da, lau urte ondoren bukatuko delarik. Hala ere, epe horren bukaeran hautatutako hautagaien aldarrikapenik egin ez bada, agintaldia hura egin arte luzatu egiten dela ulertuko da.

8.- Ordezkariek honako arrazoi hauengatik galduko dute euren egoera:

a) Agintaldia bukatzeagatik.

b) Funtzionari izateari uzteagatik.

c) Iharduneko zerbitzua edo bigarren iharduera egoera ez den beste edozein administrazio-egoeratarara igarotzeagatik.

d) Hiltzeagatik.

e) Karguari uko egiteagatik. Hori, Kontseiluko Lehendakariari bidalitako idazki baten bidez adierazi beharko da.

f) Izendatu dituen sindikatuak berak ordezkari horiek kendu izanagatik. Horiek kentzeko erabakia Kontseiluko Lehendakariari bidalitako idazki baten bidez adierazi beharko da.

9.- Aurreko idazatian oharmandako kasuetan, bete gabe dagoen ordezkari lanpostua automatikoki beteko du ordezkaturakoaren zerrenda berekoa den hurrengo hautagaiak, edo hala badagokio, ordezkoak. Ordezko horrek agintaldia bukatu arte ihardungo du.

100. atala.-

1.- Erakunde sindikalek, sindikatu-atalak sortzen dituztenean, ordezkariak izenda ditzakete atal horietarako.

2.- Eskubide horri kalterik egin gabe, eta lege honen 101. artikuluan ezarritako berme eta eskubideen erregimenaren aplikazioaz baliatzeko bakar-bakarrik, hauteskunde-barrutiei dagokienez ordezkariak lortu dituzten sindikatuak, aurreko artikuluko jarritakoaren arabera, ordezkari- kopuru jakin bat izango dute hauteskundebarrutietako bakoitzean, alegia, 250 funtzionarioko bina ordezkari, eta, hala badagokio, beste ordezkari bat ere bai, geratzen den hondarrei dagokienez.

3.- Ordezkaritza proportzionalaren sistema erabilia, erakunde sindikal bakoitzari hauteskunde-barruti bakoitzean dagokion ordezkari kopurua esleituko zaio, ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan hautagai-zerrenda bakoitzak hauteskunde-barruti bakoitzean eskuratutako boto-kopurua kontuan hartuta, eta ondoko eragiketaren arabera: ordezkariak lortu dituzten erakunde sindikalek barrutian eskuratutako boto guztien kopurua zati izendatu beharreko ordezkarien kopurua. Sobera geratutako postuak, halakorik egonez gero, erakunde sindikalei esleituko zaizkie, handienetik txikienerako hurrenkeran, bakoitzak lorturiko gainerako botoen arabera.

4.- Ordezkariek aukeratzeko hauteskundeen emaitzen iragarpenaren berri jendaurrean jakinarazten den egunetik hasita, ondorengo hogeita hamar egunetan izendatu beharko dituzte erakunde sindikalek ordezkariak; ondoko hauek izan daitezke ordezkariak: kidegokoak izan eta zerbitzu-egoeran edo bigarren jarduerako egoeran ari diren karrerako funtzionarioak, edo, bestela, prestakuntza-ikastaroa gainditu eta praktika-aldian ari diren funtzionarioak.

101. atala.-

1.- Sindikatuetakordezkariek eta ordezkoek beren zereginak betetzeko honako berme eta eskubideak izango dituzte:

a) Poliziaren egoitzetara sartzea eta horietan eragozpenik gabe ibiltzea, aginpidedun agintariari esan eta agintariak adostasuna agertu ondoren, beti ere polizia zerbitzuaren ohizko Funtzionamendua oztopatu gabe.

b) Lanbideko auziei edo gai sindikalei buruzko edozein argitalpen zabaltzea.

c) Agintealdian eta hurrengo urtean hasiera emandako diziplinazko espedientei buruz dagokion erabakia hartu aurretik Ertzaintzaren Kontseiluak egin beharreko txostenarekiko eskubidea.

d) Hileroko berrogei ordu, lan-orduen barruan eta benetako lan-orduak bailiran ordaindutakoak. Sindikatuek, dagokion organuari adierazi ondoren, euren sindikatuetoako ordezkarietara eta ordezkoei dagozkien orduen pilaketa egin ahal izango dute, hau aldi baterako funtzionarietara edo praktiketan ari direnei ez dagokiela, ezta izendapen librearen bitartez betetako lan-postuetako Funtzionarietara dagokienean hileroko hamar ordu baino gehiago ezin izango dela.

e) Karguan dauden bitartean eta utzi ondorengo hurrengo urtean zehar lekuz aldatuak edo zigortuak ez izatea, lekuz aldatzea edo zigortzea beren ordezkarietara-iharduerarako ekintzek eragiten badute.

f) Ordezkarietara-iharduerengatik, hain zuzen ere, beren hobekuntzan ekonomi edo lanbide bereizkeriarik ez jasatea.

2.- Sindikatuen iharduera errazteko asmoz, berrehun eta berrogeitamar funtzionari baino gehiago dituzten polizia egoitzetan gela bat prestatuko zaie; gelaren erabilera sindikatuen arteko adostasunez antolatuko da. Era berean, polizia egoitza guztietan sindikarizta-iragarkiak jartzeko tokiak egongo dira, eta funtzionarietara behar den moduan ikus ditzaten kokatuko dira.

3.- Aurreko idaztietan jarritako eskubide eta bermeak sindikatuekin izenpetutako akordioetan adieraz daitezkeen beste berme eta eskubideak, edo haietatara baliatzeko baldintzarik egokienak, gordez eta hauen kaltetan gabe ulertuko dira. Aipatutako akordio horien edukia izenpetu dituzten sindikatuentzako eta, hala gertatuz gero, horietara eratzikitzen zaizkienentzako izango dira erabili beharreko.

102. atala.-

1.- Sindikatuek, beren ordezkarien edo ordezkoei bitartez, polizia egoitzetan bilerak antola ditzakete; bilerak zerbitzuko orduetatik kanpo egingo dira, eta aginpidedun agintariak baimendu ondoren. Bilera egiteak ezin izango du inolaz ere eraginik izan zerbitzuak betetzean.

2.- Bilera egiteko baimena idazki bidez eskatu beharko da eta gutxienez lau egutegi-egun aurretik; eskaeran bilerarako eguna, ordua, lekua eta gai-zerrenda jarri beharko dira. Baldin eta bilera egiteko ipinitako eguna baino hogeitalau ordu lehenago dagokion ebazpena ez bada jakin erazi, bilera egin ahal izango da, beti ere zerbitzuen ihardunean eraginik izan beharko ez duela.

3.- Bilerarako deia egin dutenek bilera arazorik gabe burutzearen erantzukizuna dute.

103. atala.-

1.- Ertzaintzako funtzionarietara beren lan-baldintzak zehazteko dagokien parte hartzea, atal honen hurrengo leerroaldian aipatzen den ordezkotzara egiaztatzen duten sindikatuen bidez egingo da.

2.- Aurreko leerroaldian esaten dena gauzatzeko, negoziazio-mahai bat antolatuko da Ertzaintzan, Autonomi Elkarteko Administrazioaren ordezkarietara eta Ertzaintzan ordezkotzara duten sindikatuen ordezkarietara osatua; ordezkotzadun sindikatotzara hartuko dira bakarrik, lege honen 99. atalean ezarritakoaren arabera hauteskundeak egin eta ordezkarien ehuneko hamar gutxienez lortu dutenak.

Ertzaintzaren negoziazio-mahaiari dagokio alor horretako funtzionarien lan-baldintzak zehaztea; hala ere, Autonomi Elkarteko Administrazioaren funtzionari guztientzako lan-baldintzak zehazteko osatutako negoziazio mahai orokorrak onartzen dituen erabakietara lotuko zaie ondoko gaietan:

a) Urteko gehienezko lanordu-kopurua eta lansarien handitze orokorra.

b) Lanpostuen zerrendak atontzeko irizpide orokorrak.

c) Sindikaritza-eskubideen arileku orokorra.

d) Lan-osasun politika.

3.- Autonomi Elkarteko Administrazioaren aginpideei buruz, hauexek izango dira negoziazio-gaiak:

a) Lansariak gehitu, zehaztu eta gauzatzea, eta lansarien arauketa egokitzea.

b) Barne sustapen, prestakuntza eta hobekuntzarako egitarauak eta dirutzak zehaztea, lege honen 7. atalean xedaturiko aginpideak ukitu gabe.

c) Sindikaritza-eskubideei eta partaidetza-eskubideei buruzko proposamenak.

d) Lan-osasun neurriak.

e) Gizarte-laguntzak.

f) 77. atalean aipatzen diren laneguna, lan-egutegia eta oporren arauketa, eta atal horren bigarren lerroaldian oharmandako kasuei dagozkien ordainezkoak.

g) Lizentzia eta baimenak.

h) Lanpostuen sailkapena eta lanean aritzeko profesional-baldintzak.

i) Lanean sartu, lanpostua bete eta lantokian gora egiteko bideak.

104. atala.-

1.- Administrazioaren eta aurreko atalean aipatzen diren sindikatuen ordezkariak aurreko atalean oharmandako gaiei buruzko ituneak eta akordioak egin ahal izango dituzte.

2.- Akordioek erabiliko dituzten gaiak Gobernu-Kontseiluaren aginpide izango dira, eta, baliagarri eta eraginkorrak izateko, aipatutako organoaren berarizko eta erazko onarpena beharrezkoa izango da.

3.- Ituneak, izenpetzen dituen organoaren aginpide-eremuari egokitzen zaizkion gaiei buruzkoak izango dira, eta esku hartu duten parteentzat behartze-indarrekoak izango dira zuzenean.

4.- Negoziazioan adostasunik lortzen ez denetan edo atal honetako bigarren idazatian aipatzen den berarizko eta erazko onarpena iristen ez denetan, Gobernu-Kontseiluak zehaztuko ditu lan-baldintzak.

5.- Autonomi Elkarteko Administrazioak eta sindikatuek prozedurak ezarriko dituzte, horretarako izenpetutako akordioen bidez, lan-baldintzen zehaztapenean sortu diren gatazkei edo ituneak nahiz akordioak ez betetzei irtenbidea emateko.

IV. IDAZPURUA

ERTZAINZAKO FUNTZIONARIEI BURUZ

I. ATALBURUA

LANBIDE-EGITURA

1. SAILA

ESKALAK ETA KATEGORIAK

105. artikulua.–

1.– Ertzaintza eskaletan egituratzen da hierarkikoki eta, eskala horien barruan, kategoria hauetan:

- a) Goi-mailako eskalan: intendente-kategoriarekin.
- b) Eskala betearazlean, bi kategoriarekin: komisarioa eta komisariondokoa.
- c) Ikuskapen-eskalan, bi kategoriarekin: ofiziala eta ofizialondokoa.
- d) Oinarrizko eskalan, bi kategoriarekin: agente lehena eta agentea.

2.– Eskalak ondorengo lanbide-taldeetan eta azpitaldeetan sailkatzen dira:

- a) Goi-mailako eskala talde hauetan sailkatzen da: A taldea eta A1 azpitaldea.
- b) Eskala betearazlea talde hauetan sailkatzen da: A taldea eta A2 azpitaldea.
- c) Ikuskapen-eskala eta oinarrizko eskala talde hauetan sailkatzen dira: C taldea eta C1 azpitaldea.

3.– Fakultatiboen eta teknikarien eskala ere egongo da Ertzaintzan, eta haren lanpostuak A1, A2 eta C1 sailkapen-taldekoak izango dira, kasuan kasuko eskatzen den titulazioaren arabera

2. SAILA

ZEREGINAK

106. atala.-

1.- Batez ere Eskala Goreneko langilegoari dagozkio ekintza-unitateen zuzendaritzazko, bideraketazko eta koordinaketazko zereginak, bai eta segurtasun publikoari berariz dagozkion beste zereginak ere, bereziki ikertze-lanari arreta ematen zaiolarik.

Batez ere Egiterapen-Eskalako langilegoari dagozkio poliziaren ekintza-zentru edo taldeekiko koordinaketazko eta agintezko zereginak, hala badagokio, Eskala Gorenaren zuzendaritzapean daudelarik.

Ikuskapen-Eskalako langilegoari dagokio Herritarren Segurtasuneko, Informazioko eta Ikerketako Unitateen barruko azpitaldeen erantzukizuna.

Oinarrizko Eskalako langilegoari dagozkio polizia zereginak eskatzen dituzten egiterapen-eginkizunak eta ekintza-zerbitzuan ari diren Eskalako funtzionari batekiko edo gehiagorekiko aginte-eginkizunak.

2.- Fakultatibo eta Teknikarien Eskalari dagozkio sartzeko eskatzen den titulazioak gaitzen duen lanbideari dagozkion egitekoak polizia zereginaren laguntzarako burutzea eta heziketa akademiko zehatz batek emandako ezagupen berarizkoak eskatzen dituzten zereginetan ihardutea.

3.- Aurreko idaztietan oharmandakoa gorabehera, polizia zerbitzuen egiterapenak eta herritarren segurtasunaren premiek eskatzen dituzten egitekoak burutu beharrean daude funtzionariak.

II ATALBURUA
ALORRAK ETA EGITURA
1. SAILA
XEDAPEN OROKORRAK

107. atala.-

1.- Ertzaintzako eskala eta kategorietako lanpostu-zerrendek ezingo dute gainditu aurrekontuetako langile-zerrendek ezartzen duten kopurua.

2.- Herrizaingo Sailburuak onartuko du Ertzaintzaren egitura organikoa eta hau osatzen duten dibisio, unitate, sekzio, talde eta zerbitzuetan banatuko ditu lanpostuak, Ertzaintzarentzat orokortasunez onartu diren izendapenen eta kide-kopuruaren arabera.

3.- Aipatutako egitura hori honako alor hauetaz arduratuko da: herritarren segurtasunaz, administrazio-poliziaz, gaizkintza-ikerketaz, ekintza-baliabideez eta, orohar, Ertzaintzaren zereginen eremuan poliziaren administrazioaz gizarte-errealitateak une bakoitzean eskatzen dituen alorrez.

4.- Nolanahi ere, Ertzaintzaren egitura organikoak honako zerbitzu hauek daudela kontutan hartuko du, kasu bakoitzean zehaztutako maila organikoa eta lurralde-antolakuntza dituztelarik:

- Arabako Miñoien Sekzioa.
- Bizkaiko Foralen Sekzioa.
- Gipuzkoako Mikeleteen Sekzioa.

2. SAILA
MIÑOIAK, FORALAK ETA MIKELETEAK

108. atala.-

Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioen egitura organikoa, lanpostu-zerrendak eta langile-zerrendak sekzio bakoitzari dagokion Foru Aldundiari kontsulta egin ondoren zehaztuko dira.

109. atala.-

1.- Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioek honako zeregin hauek burutuko dituzte:

- a) Foru-erakundeak ordezkatzea.
- b) Foru-agintariak babestea.
- c) Foru-ondarearen ondasunak babestea eta zaintzea, horren instalakuntza eta zerbitzuen baliatzaileen segurtasuna bermatuz.
- d) Legez indarra erabiltzea, Lurralde Historikoaren aginpide diren zereginak nahitaez burutu daitezen, zeregin horiek Ertzaintzaren beste zerbitzu bati ez badagozkio.
- e) Kidegoko gainerako unitate edo zerbitzuei laguntzea, Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailak emandako arauekin bat etorriaz.

2.- Era berean, polizi zereginak burutu ditzakete errepidezko garraioa jagon eta ikuskatzeari,

errepideak zaintzeari eta errepide-poliziari dagokionez.

110. atala.-

Aurreko atalean aipatu diren zereginak betetzerakoan, Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioetako funtzionarioak, ihardutez, dagokien Foru Aldundiaren menpe egongo dira. Orohar, Foru Aldundiei dagokie aipatutako zerbitzuak burutzerakoan zuzeneko agintea izatea eta zerbitzuak burutzeko araubidea edo zerbitzurako oharpideak zehaztea, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailak dituzten ahalmenen kaltetan gabe, bereziki hiru egiteko hauek dituztelarik:

- a) Sekzioaren barruan zerbitzu-manualdiak ematea.
- b) Oporrak baimentzea.
- c) Baimenak eta lizentziak ematea.

111. atala.-

Dagokion Aldun Nagusiak aginpidea izango du Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioetan aritzen diren Ertzaintzako kideen kontra diziplinazko espedienteak hasteko, espedienteak izapidatzeko beharrezko diren ekintza guztiak egin daitezten agintzeko eta hutsegite astun eta arinengatik zigorrak jartzeko.

3. ATALA

POLIZIA JUDIZIALA

112. artikulua.–

1.– Ertzaintzako funtzionario guztiei dagokie Polizia judizial gisa jardutea delituak ikertzen lagundu behar dutenean, bai eta delitugileak aurkitzean eta aseguratzean ere. Lan hori beren eskumenen barruan egingo dute, zeinak Autonomia Estatutuaren 17. artikuluan zehazten baitira, eta Segurtasun Batzordeak eginkizunak mugatzeko sinatutako akordioen barruan, eta betiere agintari judizialen eta Fiskaltzaren zuzendaritza-eginkizunen kalterik gabe.

2.– Ertzaintzaren egituran, krimen-ikerketako eta Polizia judizialeko unitateak ezarriko dira, zeinak funtzionalki agintari judizialen eta Fiskaltzaren mende egongo baitira, haiek agintzen dizkieten eta Botere Judizialaren Lege Organikoan jasotzen diren jarduera guztiak gauzatzean. Unitate polizial horietako arduradunek agintari judizialen eta Fiskaltzaren errekerimenduak bideratuko dituzte, funtzionarioek edo aipatutako unitateetako baliabideek ikerketa batean esku har dezaten.

3.– Segurtasun-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, jarduera-erritmoa eta langileen prestasuna kontuan hartuta, atxiki ahalko dizkie epaitegi edo tribunal jakin batzuei, iraunkortasunez eta egonkortasunez, ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko zerbitzuak, sekzioak edo unitate-taldeak.

113. artikulua.–

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren bidez emango da ikerketa kriminaleko eta Polizia judizialeko zerbitzuei atxikitako funtzionarioen prestakuntza espezifikoa, eta, hala badagokio, praktikak egiteko aldiak sartuko ditu, zeinetan Epaitzako eta Fiskaltzako kideek parte hartu ahalko baitute.

Ikerketa kriminaleko eta Polizia judizialeko unitateetako lanpostuak betetzeko, beharrezkoa izango da espezializazio egokia izatea.

114. artikulua.–

1.– Ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko unitateei atxikitako funtzionarioek eskusibotasunez beteko dute eginkizun hori, baina, nolana ere, delinkuentzia prebenitzeko misioak eta Ertzaintzari dagozkion eginkizunen artean eskatzen zaizkien gainerakoak ere garatu ahalko dituzte, egoerak hala egiteko eskatzen duenean.

2.– Epaile edo fiskal eskudunak ikerketa jakin bat egiteko agintzen dien funtzionarioei, 112. artikuluan aipatzen diren zereginak betetzean, ezin izango dira kendu ikerketa horretatik, Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitako moduan izan ezik.

3.– Zigor-arloko jurisdikzioko eta Fiskaltzako organo judizialek izango dituzte, modu iraunkorrean esleitzen zaizkien ikerketa kriminaleko eta Polizia judizialeko unitateei dagokienez, Segurtasuneko Indar eta Kidegoen martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 35. artikulua aitortzen dizkieten ahalmen berberak.

4.– Ikerketa kriminaleko eta Polizia judizialeko unitateetako funtzionarioei diziplina-espedita bat irekitzen zaienean, eta espeditatearen xedea diren gertakariak harreman zuzena badute agindu zaien ikerketarekin, mendeko diren organo judizialaren edo Fiskaltzaren txostena eskatuko da, eta horrek ez du kenduko egokitzat jotzen dituzten beste batzuk ere ematea.

5.– Sekzio honetan ezarritakoa kenduta, ikerketa kriminaleko eta Polizia judizialeko zerbitzuei atxikitako funtzionarioen erregimena, oro har, lege honetan Ertzaintzarentzat aurreikusten den berbera izango da.

115. artikulua.–

Segurtasun-arloan eskumena duen sailak bultzatuko du Ertzaintzaren partaidetza ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko koordinazioari buruzko batzorde eta foro erregional, estatal eta nazioarteko garrantzitsuetan.

V. IDAZPURUA

UDALTZAINGOEI BURUZ

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

116. atala.-

1.- Bost mila biztanle edo gehiago duten Euskal Herriko udalerriek beren Polizia Kidegoak sor ditzakete.

2.- Salbuespen gisa, bost mila biztanle baino gutxiago duten udalerriek sor ditzakete beren Udaltzaingoak, zalantzarik gabe premiazkoak edo egokiak direnean. Kasu horretan, Kidegoa sortzeko Eusko Jaurlaritzak baimena eman beharko du aurretik.

3.- Nolanahi ere, Udaltzaingoak sortzeko erabakiek Udaltzako kideen legezko kopuruak gehiengo osoz aldeko botoa ematea eskatzen dute.

4.- Udaltzaingoek ezin kasutan ere ez dute izango antolakunde eta ihardute-menpekotasunik Eusko Jaurlaritzarekiko edo euskal Autonomi Elkartearen Administrazioarekiko, ez eta honen esanerako Kidegoarekiko ere, horren menpekotasuna bakoitzaren udalerrikoarena soilik izango da baizik.

117. artikulua.–

1.– Udaltzaingorik ez duten udaletan, udaltzaingo-zerbitzu bat sortu ahal izango da, gehienez ere bost agente-plazarekin, eta haien artean nagusi koordinatzaile bat izendatu ahal izango da, izendapen librez, haien postuetan agertzen diren beste eginkizunen artean, lege honen 27.1 artikuluan jasotzen diren eginkizunak betetzeko.

2.– Zerbitzu horietako langileak, armak eraman edo ez, agintaritzaren agente izango dira beren eginkizunak betetzen dituztenean, uniforme erabiliko dute eta dagozkion dokumentazioarekin eta bereizgarriarekin egiaztatu behar dute agintaritzaren agente direla. Haien jarduera-eremua bakoitzari dagokion udalerrria izango da, alde batera utzita hondamendiko edo lazeria publikoko egoeretarako kasu bakoitzean indarrean dagoen legedian xedatutakoa.

3.– Udaltzaingo-zerbitzuetako langileak C1 azpitaldeko funtzionarioak izango dira, ondorio guztietarako parekatuta egongo dira udaltzaingoetako oinarrizko eskalako agente-kategoriarekin eta lege honetan xedaturikoa aplikatuko zaie, bai eta toki-administrazioko funtzionarioei aplikatu beharreko estatutua ere.

4.– Udaltzaingoko agente-kategoriarako ezarritako irizpide berberen arabera hautatuko dira, ezagutzen probak dagozkion titulaziora egokituta, eta aurrez prestakuntza-ikastaro bat gainditu beharko dute Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian.

117 bis artikulua.–

1.– Udaltzaingoa duten udalerriek izendatu ahal izango dituzte, hala eskatzen duten behin-behineko beharrak sortzen direnean, polizia-laguntzaile funtziodun bitarteko funtzionarioak, lege honen 27.1 artikulua d) eta i) paragrafoetan ezarritako funtzioak bete ditzaten eta Udaltzaingoaren elkarlanean aritu daitezen, bai eta herriguneetan trafikoa antolatzen, mugikortasun-agenterik gabeko udalerrietan.

2.– Beren funtzioak betetzeko, udaltzain-laguntzaileek udaltzainei dagokien uniforme jantzi beharko dute, plaka-ikurrik eta bereizgarririk gabe besaburuetan, eta ondo agerian jarrita beren polizia-laguntzaile izaera, bai uniformearen, bai lanbide-egiaztagirian.

118. artikulua.–

1.– Udaltzaingoaren kidegoak eskaletan egituratzen dira hierarkikoki, eta eskala horien barruan, kategoria hauetan:

- a) Goi-mailako eskalan: intendente-kategoriarekin.
- b) Eskala betearazlean, bi kategoriarekin: komisarioa eta komisariondokoa.
- c) Ikuskapen-eskalan, bi kategoriarekin: ofiziala eta ofizialondokoa.
- d) Oinarrizko eskalan, bi kategoriarekin: agente lehena eta agentea.

2.– Eskalak ondorengo lanbide-taldeetan eta azpitaldeetan sailkatzen dira:

- a) Goi-mailako eskala talde hauetan sailkatzen da: A taldea eta A1 azpitaldea.
- b) Eskala betearazlea talde hauetan sailkatzen da: A taldea eta A2 azpitaldea.
- c) Ikuskapen-eskala eta oinarrizko eskala talde hauetan sailkatzen dira: C taldea eta C1 azpitaldea.

3.– Udaltzaingoetan eskalak eta kategoriak sortzeak Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez ezartzen dituen kategorien arteko proportzionaltasun-irizpideei erantzun behar die, biztanleria,

herriaren ezaugarriak eta agente kopurua kontuan hartuta, eta dagozkion kategoriak sortzera behartuta egongo dira honako kasu hauetan:

a) Intendente-kategoria, 150.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, bertako polizia-kidegoak 200 agente edo gehiago baldin baditu plantillan.

b) Komisario-kategoria, 50.000 biztanle baino gehiago eta plantillan 100 udaltzain edo gehiago dituzten udalerrietan.

c) Komisariondoko kategoria, 25.000 biztanle baino gehiago eta plantillan 40 udaltzain edo gehiago dituzten udalerrietan.

d) Ofizial-kategoria, 15.000 biztanle baino gehiago eta plantillan 20 udaltzain edo gehiago dituzten udalerrietan.

e) Ofizialondoko-kategoria, 15.000 biztanle baino gutxiago eta plantillan 5 udaltzain edo gehiago dituzten udalerrietan.

4.– Goragoko kategoria bat eratzeko, azpiko beste kategoria guztiek aurrez eratuta egon beharko dute.

119. artikulua.–

Udaltzaingoaren buruzagitzako lanpostuei dagokien kategoriari dagokionez, buruzagitza pertsona bakar baten esku dagoenean, Udaltzaingoarentzat onartutako hierarkia-egiturako gorengo kategoriari egokituko zaio, aurreko artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz.

120. artikulua.–

1.– Udal batek premiaz eta aldi baterako lanpostuak bete behar dituzenean Udaltzaingoko zenbait kategoriatan, lege ezarritako udalen arteko lankidetzak bitartekoen arabera jokatu ahal izango du, edo zenbait bitarteko funtzionario izendatu, funtzio publikoko legeriak orokorrean ezarritakoaren arabera, betiere bitartekoei beren zereginetan jarduteko oinarrizko prestakuntza ematen zaiela bermatzen badu. Azken kasuan, plantillako plaza hutsak izanez gero, izendapena egiteko beharrezkoa izango da alde aurretik plaza huts horiek enplegu-eskaintza publikoan sartzea eta plaza horiek jabegoan betetzeko prozesua hasita egotea, edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari hautaketarako kudeaketa-gomendia eskatzea.

2.– Toki-erakundeek Ertzaintzaren laguntza eskatu ahal izango diote segurtasun-arloan eskumena duen sailari, Udaltzaingolari dagozkien polizia-funtzio hutsetan, bai eta herriguneetako zeharbideetan trafikoa antolatu eta zuzentzeko ere, polizia-kidegorik ez badute edo, izanda ere, beren eskumeneko zerbitzu guztiak emateko baliabide nahikorik ez badute. Azken kasu horretan, lankidetzak ezin izango dira iraunkorra izan.

3.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak lan-poltsak osatu ahal izango ditu, bitarteko funtzionarioak udaltzain laguntzaile edo udaltzain funtzionario izendatzeko, berak antolatutako oinarrizko ikastaro espezifikoa gainditu dituztenekin. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak zehaztuko ditu ikastaroa egiteko baldintzak.

III. KAPITULUA

MUGIKORTASUN AGENTEAK

121. artikulua.–

1.– Biztanle ugari duten udalerrietan, Udaltzaren Osoko Bilkurak funtzionario batzuk izendatu

ahalko ditu herrigunean trafikoa antolatzeko, seinalatzeko eta arautzeko funtzioak eskusiboki betetzeko, trafiko eta bide-segurtasuneko arauetan ezarritakoaren arabera, eta mugikortasun-agente deituko dira. Hori egiteak ez du ekarriko agente kopurua handitzea, ezta langile-kostuak ere.

2.– Beren eginkizunak gauzatzean agente-agentetzat joko dira, tokian tokiko Udaltzaingoko langileen mende, baina kidego horietan sartu gabe; ezin izango dute su-armarik eraman eta haien uniformeak argiro bereizi beharko dira Udaltzaingoa berezko dituenetik.

3.– Plaza horiek eskuratzeko, C-2 klasifikazio-taldeari edo baliokideari dagokion titulazioa eduki beharko da, eta aldez aurretik ikastaro teoriko-praktiko bat gainditu beharko dute, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian edo hark ordeztutako prestakuntzako udal-zentroetan, eta beste gainerako kontuetarako tokiko funtzionarioentzat aurreikusitako arau erkidearen arabera jo beharko dute.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

LEHENENGOA.-

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31.2 atalean ezarritakoaren arabera Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagokion ordezkari Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak beteko du Toki-Administrazioaren menpeko Polizia Kidegoetan sartzeko dei egindako aukeraketa-probetako epaimahaietan.

BIGARRENA.-

II. eta III. Idazpuruetan ezarritakoa, azken honetako VIII. Atalburua izan ezik, hala nola haiei buruzko xedapen gehigarriak, aldi baterakoak eta azken xedapenak aplikatu ahal izango zaizkie udaltzainei.

LAUGARRENA.-

Lege honetako 56. atalaren 2. idazatian ezarritakoa hala izanik ere, hirurogei mila biztanletik beherako udalerrietako Polizia Kidegoetan barne-aurrerabidez eta txanda librez sartu ahal izango da Ofiziale-ondoko eta Ofiziale kategorietara, norgehiagoka edo lehiaketa-norgehiagoka sistemen bidez.

BOSKARRENA.-

Sei hilabeteko epean Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailak Ertzaintzaren Albistaria sortuko du Saileko iragarkuntza-aldizkari ofizial gisa, eta honako eduki hauek izango ditu:

a) Herritarren segurtasunarentzat orohar eta Euskal Herriko Poliziarentzat edo horko kideentzat kide diren neurrian interesgarri izan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Kondaira-Lurraldeetako Aldizkari Ofizialetan edo Estatuko Boletin Ofizialean argitaratutako xedapenak, ematen dituen organoak ematen dituela. Xedapen horiek dagokion Aldizkari Ofizialetik dauden bezalaxe hartuta argitaratuko dira, arau horiek diotena zabaltzeko helburuarekin.

b) Herrizaingo Sailburuaren aginduak Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen saileko beste edozein organoren ebazpenak, lege honek ezarritakoaren arabera edo izaera orokorreko xedapenek diotenaren arabera bertan argitaratzea aginduzkoa bada.

c) Ertzaintzarentzat interesgarri izan daitekeen bestelako edozein informazio.

SEIGARRENA.-

Ertzaintzako funtzionarioek polizi Administrazioako lanpostuak bete ahal izango dituzte, lanpostu-zerrendetan zehazten diren kasu eta baldintzetan, baina bertan emandako aldia ezingo da kontatu

norbere gradua finkatzeko.

ZAZPIGARRENA.-

Lege honetako 42. atalaren 1. idazatian ezarritakoaren kaltetan gabe, Ertzaintzako lanpostuei jartzen zaizkien hizkuntz eskakizunak onestea Gobernu-Kontseiluari dagokio.

BEDERATZIGARRENA.-

Lege honetan oharmandako ondorioetarako, unibertsitateko diplomatu-tituluaren baliokidetzat joko da lizentziaturako hiru ikastaro oso gainditu izana.

HAMARGARRENA.-

Ertzaintzako funtzionariak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorren menpe egongo dira eta hark babestuko ditu.

HAMABIGARRENA.-

2.- Gaur egungo Arabako Miñoien kidegoetakoak diren funtzionariak oso-osoan mantenduko dute jatorrian zuten gizarte-aurrerazaintzaren araubidea, baldin eta Lege honetan Ertzaintzaren funtzionarietzat ezarritakoaren menpe geratzea aukeratzan ez badute; orobat, kasua balitz, aitortuak dituzten hirutekoak eta antzinatasuna; halaber, Arabako Foru Aldundiko Miñoien Sailean duten destinoa ere, Euskal Herriko Polizia Kidegoetan beste destino batzu betetzeko duten eskubidea baldintzatu edo kaltetu gabe.

Era berean mantenduko dituzte Arabako Foru Aldundian aitortuak zituzten urteko lan-orduen kopurua, lansariak eta gizarte-onurak, baldin eta kontu guzti horietarako Ertzaintzarentzat erabakirikora lotzea aukeratzan ez badute. Aukera hori behin bakarrik erabiliko da eta behin betikoa izango da.

Aipatu funtzionariak bete ahal izango dituzte, hala balegokio, Arabako Foru Aldundiko lanpostuak, erakunde honek zehaztuko dituen kasu eta baldintzetan.

4.- Baldin eta, Ertzaintzako funtzionarietzako xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren ondorioz, desagertu den lanbideagatik funtzionariak jasotzen zituen lansari finko eta aldizkakoetan murrizketarik gertatuko balitz, kaltetutako lanariak aldeagatik osagarri pertsonal eta aldibaterako bat jasotzeko eskubidea izango du, irensgarria izango dena.

HAMAHIRUGARRENA.-

1.- Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailak zehaztuko ditu, alde batetik, janzkiak, arauzko armak, eta Ertzaintzako funtzionarien irudi-batasunari dagozkion gainerako langai eta gauzak, eta, bestetik, horien nortasuna egiaztatzen duten baliabideak, kategoria bakoitzaren bereizgarriak, hala nola horien erabilera araupetuko luketen arauak. Era berean, Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailari dagokio polizi egoitzetan, autoetan eta bestelako ibilgailuetan agertu beharreko zeinu bereizgarriak eta jendaurreko adierazpideetako agerraldietan erabili beharrekoak zehaztea.

2.- Miñoi, Foral eta Mikelete zerbitzuei atxikitako funtzionarien irudi-batasunari dagozkion janzki, langai eta bestelako gauzen deskribapena, diseinua eta ezaugarri teknikoak, nolana ere, dagokion Diputatu Nagusiak horri buruz ematen dituen aginduei lotu beharko zaizkie.

HAMABOSKARRENA.-

1.- Lege honen 99. atalean xedaturikoaren arabera aukeratuak diren ordezkarien ordezkotza,

Autonomi Elkarteko Administrazioaren funtzionarien lan-baldintzak zehaztuko dituen negoziazio-mahai orokorraren osaketa erabakitzeko, eta Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan lanarien ordezkariak finkatzeko izango da.

2.- Aurreko lerrokadan aipaturiko Mahai Orokorrak gaitasuna izango du Ertzaintzaren mahaian eramango den negoziazio kolektiboaren bilakaerari buruz azterketa egin eta erabakiak hartzeko.

3.- Aldika jakinaraziko zaizkio Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluari, Estatutuaren arabera Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioei dagozkien gaiak ukitzen dituzten xedapen orokorrak.

HEMERETZIGARRENA.-

Lege honen 59, 105 eta 118. artikuluetan adierazitako titulu-eskakizun orokorra betetzat joko da Euskal Herriko polizia-kidegoen oinarritzko eskalako funtzionarioak barne-sustapena bidez Ikuskapen Eskalan sartzeko prozeduran lehiatzen badira.

HOGEIGARRENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako funtzionarioek, baldin eta kondizio hori galdu badute erretiroa hartu dutelako, kidegoko kide erretiratuaren kondizioari eutsiko diote, erretiroa hartzerakoan zuten kategoriarekin, eta uniformea jantzi ahalko dute ekitaldi instituzional eta sozial hotsandikoetan, agiri profesionala izan eta ikur-plaka gorde, zeinak behar bezala aldatuko baitira erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

HOGEITA BATGARRENA

Zerbitzu aktiboaz besteko egoeretan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako funtzionarioek, bai eta erretiroa hartzeagatik funtzionario-kondizioa galdu dutenek ere, baldin eta judizio batean bertaratu behar badira lekuko edo peritu gisa zerbitzu aktiboan eman zuten denborarekin zerikusia duten gertakariak edo ikerketak direla-eta, zerbitzu-arrazoia dela-eta aktiboan dauden funtzionarioentzat aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango dute. Judizioan bertaratu daitezten errazte aldera, oraingo helbidea jakinarazi beharko diote Administrazioari.

HOGEITA BIGARRENA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak krimen-ikerketari eta Polizia judizialari buruzko prestakuntza-jarduera espezifikoko antolatutako ahalko dituzten udaltzaingoentzat, horrelako eginkizunak bete ditzaten ekainaren 28ko 15/2012 Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko Legearen 44.3 eta 4 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Erregelamendu bidez arautuko da udaltzaingoetako funtzionarioak Ertzaintzako krimen-ikerketako eta Polizia judizialeko unitateetara zerbitzu-eginkizunetan atxikitzeko aukera.

HOGEITA HAMAHIRUGARRENA.

1.– Alkateek, Udaltzaingoko burutzaren aurretiko txostenarekin, baimena eman dezakete destinoak trukatzeko zerbitzu aktiboan dauden eta zenbait udalerritan zerbitzua ematen duten udaltzaingoetako langileen artean, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Biak ala biak Udaltzaingoko karrerako funtzionario izatea.

b) Eskala eta kategoria berekoak izatea.

c) Eskatzaileetako bat ere ez ari izatea buruzagitza-postu bat edo izendapen libreko postu bat betetzen.

d) Zerbitzu aktiboan bost urtez jarraian egon izana, eta batak eta besteak zerbitzuan eman duten urte kopuruaren diferentzia ez izatea hamar urte baino handiagoa.

e) Gutxienez hamar urte falta izatea legez ezarritako erretiro-adina betetzeko.

f) Trukatzaileetako batek ez hartzea borondatezko erretiro aurreratua edo borondatezko eszedentzia trukea egin eta hurrengo bi urteetan. Kasu horretan, eraginpean dauden bi korporazioetako edozeinek deusezta dezake trukea erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren bitartez.

g) Eskatzaileetako batek ere ez edukitzea diziplina-espediterik irekita edo zehapen bat betetzen ez egotea.

2.– Trukatzaileetako batek ere ezin du beste truke bat eskatu aurreko trukea egin zenetik bost urte igaro arte.

3.– Lanpostuak betetzeko prozesu honetan emandako baimenetan, aintzat hartuko da funtzionarioen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

SEIGARRENA.-

Lege hau indarrean jartzen denetik kategoria bakoitzarentzat egiten diren hiru lehenengo deialdietan, barne promozioz sartzeko bete behar den gutxienerako iraunaldia eskatuko da, Polizia Kidego horren garapenak eskatzen dituen beharrak kontuan izanik Eusko Jaurlaritzan segurtasun-erloko eskumena duen sailak eta dagokion toki erakundeko agintepidedun organoak ezartzen duten neurrian.

Deialdi horietan barne promozioiko txandan lehiatu ahal izango dute, lege honen 59. atalean aipaturiko funtzionarioez gainera, hurren beherago dagoen Eskalako ezein Kategoriatakoak direnak ere, ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Kasuan kasuko kategorian sartzeko eska daitezkeen tituluen jabea izatea.

b) Jatorrizko eskalan zerbitzu baliagarrietan Eusko Jaurlaritzan segurtasun-erloko eskumena duen sailak edo kasuan kasuko toki erakundeko organoak zehazturiko denboraldia bete izana; denboraldi hori inola ere ez da izango hurren beherago dagoen Kategoriatik lehiatu ahal izateko eska daitekeena baino laburragoa.

c) Oker larririk edo oso larririk egitearren zigortua ez izana, edo bestelakoan, ezarritako zigorra baliogabetzea lortu izana.

INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indargabeturik gelditzen dira lege honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo apalagoko arauak.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA.-

1.- Ertzaintzako eta Udaltzaingoko funtzionarioak, bere estatutu-araubideari dagokionean, Euskal Funtzio Publikoaren legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko dira osagarri moduan.

2.- Ertzaintzaren hizkuntz normalkuntza Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989

Legearen V. Idazpuruan ezarritakoaren arabera araupetuko da berariz. Eusko Jurlaritzak, Ertzaintzaren izaera eta berezitasun funtzionalak direla eta, sektore horretan burutuko den hizkuntz normalkuntzaren prozesua araupetuko du, aldi baterako hirugarren xedapenean adierazten den epean.

BIGARRENA.-

Lege hau egiteratzeko beharrezko liratekeen xedapen oro emateko baimena dauka Jurlaritzak.

HIRUGARRENA.-

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean lege hau.